



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko otsailaren 28a

17. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, kontratu publikoei buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak ([2. or.](#)).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, kontratu publikoei buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, kontratu publikoei buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu daitezela agindu dut. Proiektu hori 2005eko abenduaren 20ko 132. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

OSOKO ZUZENKETA

1. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zuzenketa, zeinaren bitartez eskatzen baita Kontratu publikoei buruzko Foru Legearen proiektua Nafarroako Gobernuari itzultzea

Kontratuei buruzko lege honen asmoa da foru legeria gai honetan emandako Europako zuzentzarra egokitzea eta kontratazio jarduera taxutzea foru araudiaren gainerakoarekin koherentea den era batean; alabaina, proiektu honek ez ditu helburu horiek behar bezala betetzen, honako arrazoi hauek direla-eta:

1.- Arauaren egiturari dagokionez, zorrotasunik eta koherentziarik eza.

2.- Ustelkeriaren gaitzari aurre egiteko neurri erradikalik eza.

3.- Eginkizun garrantzitsuak dituzten zenbait organo, kontratazio batzordea kasu, behar bezala ez egituratzea.

Parlamentuan ponentzia bat eratu ezean, arau hau, zeinak, bestalde, beste batzuetan ere eragiten baitu eta, halatan, toki administrazioari buruzko legea aldarazten baitu, Gobernuari itzuli behar zaio.

ARTIKULUEI **AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

2. ARTIKULUARI **AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

1. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko 1. idatz-zatiko a) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Alde batera utzi behar da, zeren eta, besteak beste, ezin baita egon kontratazioetan Kontratazio Batzordearen eta haren erakunde erantsien menpe.

2. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko 2. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez dago zertan administrazioa osatzen duten entitate publikoak berriz definitu lege proiektu honetan.

3. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- **NAFARROAKO EZKER BATUA** **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proiektuko 2. artikuluko 1. idatz-zatiko c) letra honela geldituko da:

“c) Nafarroako toki entitateak eta haien erakunde autonomoak, toki administrazioari buruzko foru legeriaren ondoriozko berezitasunekin”.

Zioak: Kontuan hartzea toki araubideari buruzko legerian ohikoa dela arau berezi batzuk jasotzea.

4. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2.1.c) artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

2.1.c) artikulua. "Nafarroako toki entitateak eta haien erakunde autonomoak, Nafarroako toki administrazioari buruzko Foru Legean ezarritakoari jarraikiz".

Zioak: Kontratazio publikoaren arloan foru legeria toki entitateei aplikatzearen zergatia da horretara joarazten duela Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/90 Foru Legeak, zeinak, halaber, toki-erakundeen esparrurako berezitasun batzuk ezarzen baititu.

5. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko 1. idatz-zatiko c) letran gehiketa egiteko zuzenketa.

Testua honela geldituko litzateke:

"c) Nafarroako toki entitateak eta haien erakunde autonomoak, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legean ezarritakoari jarraikiz".

Zioak: Kontratazio publikoaren arloan foru legeria toki entitateei aplikatzearen zergatia da horretara joarazten duela Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legeak, zeinak, halaber, toki-erakundeen esparrurako berezitasun batzuk ezarzen baititu.

6. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. 2. artikuluko 1. idatz-zatiko e) letraren ordean honako hau jartzea proposatzen da: "Enpresa-entitate publikoak eta zuzenbide publikoko edozein entitate, nortasun juridiko berekia duena eta administrazio publiko bati loturikoa edo haren menpekkoa dena, baita harako entitate haiek zeinek, independentzia funtzionala izanik edo lege aitorturiko autonomia

berezi baten bitartez, sektore edo jarduera jakin batzuetan arauketa edo kontrol botereak gauzatu baitituzte".

Zioak: Hobekuntza teknikoa, Estatuko testuari eta Europako zuzentarauari egokitzeko.

7. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko 1. idatz-zatiko e) letrako azken lerrokada aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

2. artikuluko 1. idatz-zatiko e) letra, azken lerrokada. "Nafarroako administrazio publikoek, zuzenean edo zeharka, haien jardueraren erdia baino gehiago finantzatzea edo haien jardueren gain eragin nagusia izatea, kudeaketa kontrolatzeko mekanismoen bitartez edo administrazio, zuzendaritza nahiz zaintza organoetako kideen erdiak baino gehiago izendatzea ahalbidetzen duten mekanismoen bitartez".

Zioak: Proiektuko lerrokada horren arabera beharrezkoa zen hiru inguruabarretako bi gutxienez ere betetzea; Europar Batasuneko 2004/18 Zuzentarauak, ordea, 1.9 artikuluan hiru horietatik bat baino ez du eskatzen.

8. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko 1. idatz-zatiko e) letra aldatzeko zuzenketa.

"e) Enpresa-entitate publikoak, eta aurrean aipatutako entitateei loturik edo haien menpean diharduten gainerako entitateak eta horien elkartak, nortasun juridikoa badute, publikoa nahiz pribatua, eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari buruzko abenduaren 2ko 15/2004 Foru Legearen arabera erakunde publiko edo administrazioaren menpeko entitateetat hartzen direnak".

Zioak: 15/2004 Foru Legea da Nafarroako administrazioa osatzen duten entitateak definitzen dituen, eta kontratuei buruzko legean "jarduera zuzenean edo zeharka finantzatzea" bezalako kontzeptuak sartzeak ez du ez zorrotasunik, ez segurtasun juridikorik.

9. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

2. artikulua 1. idatz-zatian g) letra gehitzeko zuzenketa.

“g) Zuzenean edo zeharka obra, zerbitzu eta prestazioen kontzesio administratiboaren titularrak diren pertsonak eta entitateak”.

Zioak: Administrazioak eginkizun asko betetzen ditu kontzesio administratiboaren figura erabiliz; kontzesio horien zuzeneko titularrak izan daitezke administrazioarekin kontratatu duten pertsona fisikoak edo entitateak; zeharkako titularrak izan daitezke, berriz, kontzesio-hartzailearekin berarekin kontratatu duten pertsonak. Jarduera hori, zeinaren bitartez administrazioak jarduten baitu, kontra publikoei buruzko legeari lotu behar zaio.

10. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

2. artikulua 1. idatz-zatian h) letra gehitzeko zuzenketa.

“h) Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera”.

Zioak: Azaroaren 19ko 17/98 Foru Legeak araututako administrazio publiko bat da.

11. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proiektuko 2. artikuluko 2. idatz-zatia honela geratuko da idatzita:

“2. Foru lege honen aplikazioari dagokionez, Nafarroako administrazio publikoak aurreko idatz-zatiko a), b), c) eta d) letretan aipaturako entitateak dira. Aurreko idatz-zatiko a) letretan aipaturako entitateei aplikatuko zaizkie, halaber, Nafarroako administrazio publikoei dagozkien arauak, berriazko legeriak jasotzen dituen berezitasunekin, kasua bada”.

Zioak: Nafarroako Parlamentua, Comptos Ganbera eta Arartekoa ez dira administrazio publikoak.

12. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

2. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa:

“3. Merkataritza sozietateei ez zaie aplikatuko... eta interes publikoak ez diren industri edo merkataritza jarduerak bakarrik egiten badituzte eta ez baldin badiote ez zerbitzurik, ez hornidurarik ematen administrazio publikoari, haren erakunde autonomo edo 15/2004 Foru Legean definituriko enpresa publikoei, edo ez badute aipaturiko horietako inorekin inongo merkataritza-harreman zuzenik”.

Zioak: Kontratu publikoei buruzko legearen bazter uzteak zorrotzak eta murrizgarriak izan behar dituzte, eta salbuespen gisa ezartzen da esate baterako horniduretan aritzen den enpresa batek halakorik ematea administrazioari.

13. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Gehiketa egiteko zuzenketa. 2. artikuluko 1. idatz-zatiko a) letraren amaieran honakoa gehitzea proposatzen da: “eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua, edo antzeko izaera duen beste edozein entitate”.

Zioak: Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua entitate beregaina da, nortasun juridiko berekia duena, eta lerokada bereko beste hiru entitateen maila berekoa da, lege honen ondorioetarako.

14. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Gehiketa egiteko zuzenketa. 2. artikuluko 1. idatz-zatiko c) letraren amaieran honakoa gehitzea proposatzen da: “Nafarroako toki administrazioari buruzko Foru Legean ezarritakoari jarraikiz”.

Zioak: Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren kezka aintzat hartzea, udalekiko errespetuarekin bat etortzeagatik.

15. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Gehiketa egiteko zuzenketa. 2. artikuluko 1. idatz-zatiko g) letrari beste lerrokada bat gehitzea proposatzen da: "Sozietate-kapitaleko partaidetzaren % 50 baino gehiago, zuzenean nahiz zeharka, sektore publikokoak diren entitateena daukaten merkataritza-sozietateak".

Zioak: Sektore publikoaren eta, horren barruan, administrazio publikoaren ezberdintasuna kalifikatzen ez denez gero, administrazio periferikoa ezin da legetik at gelditu; izan ere, kasu horretan halako linbo bat litzateke, eta hori aurreikusita dago Estatuko proiektuan.

16. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Gehiketa egiteko zuzenketa. 2. artikuluko 1. idatz-zatiko h) letrari beste lerrokada bat gehitzea proposatzen da: "Sektore publikoan txertaturiko entitate batek zuzenean nahiz zeharka eginiko ekarpen nagusi batekin eraturiko fundazioak, edo fundazio-ondarea aipaturiko entitateak ekarritako edo lagatako ondasun edo eskubideek osaturikoa dutenak, modu iraunkorrean eta % 50 baino gehiagoko heinean".

Zioak: Egitekoa den estatu-mailako legediarekin bat etortzea eta fundazioak foru legearen xedapenen menpean egoteari buruzko edozein interpretazio saihestea.

17. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Gehiketa egiteko zuzenketa. 2. artikuluko 1. idatz-zatiko i) letrari beste lerrokada bat gehitzea proposatzen da: "Bestelako edozein entitate edo organismo, nortasun juridiko berekia duena, beraiaz eratua izan dena industria edo merkataritza izaerakoak ez diren interes orokorreko beharriaz asetzeko, baldin eta sektore publikoko subjektu batek haren jarduera zuzenean edo zeharka finantzatzen badu, edo haren gain eragina badu haren kudeaketa kontrolatzeko mekanismoen edo haren administrazio, zuzendaritza edo ikuskapen

organoetako kideen erdiak baino gehiago hautatzea ahalbidetzen duten bitartekoen bidez".

Zioak: Proiektua Estatukoarekin harmonizatzea eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren proposamena onartzea.

18. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Kenketa egiteko zuzenketa. 2. artikuluko 3. idatz-zatia kentzea proposatzen da.

Zioak: Formula horren bitartez zilegi da kontratazio ia guztia foru lege honen esparrutik ateratzea tarteko enpresen bitartez, zeren eta zer da, nork edo noiz definitzen du interes publikoa?

**3. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****19. ZUZENKETA****ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikuluko b) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Diruz lagundutako entitateen gaineko kontrola Dirulaguntzei buruzko foru legean ezarritako bideetatik egin behar da; obra kontratuei buruzko idatz-zati hau ez dator bat harekin.

20. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikuluko c) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Diruz lagundutako entitateen gaineko kontrola dirulaguntzak erregulatuz egin behar da.

21. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikuluko d) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Administrazio publikoaren obra, zerbitzu eta prestazioen kontzesio-hartzaileak Kontratu publikoei buruzko Foru Legearen menpeko entitateen artean sartzearekin bat etortzeko, d) letra hori kendu beharra dago, zeren eta ez bailituzke bildu-

ko ez kontzesio-hartzaile publikoen jarduera guztiak (obrei buruz ari da bakarrik), eta ez baitator bat legearen egitura argiarekin, atariko tituluko 1. kapituluaren xedea legearen esparrua zehaztea da eta.

22. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proiektuko 3. artikuluko b) letra aldatzea, halako moldez non "kirol, josteta eta aisia zentroak" esan beharrean, honela esan behar baitu: "kirol, kultur, josteta eta aisia zentroak".

Zioak: Arauaren eragin-eremua hobeki zehaztea.

23. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. 3. artikuluko b) letran dioten "foru lege honen menpeko entitateek zuzenean %50etik gorako dirulaguntza ematen badiete" testuaren ordez honako hau proposatzen da: "foru lege honen edo beste administrazio publiko batzuetako antzeko legediaren menpeko entitateek % 50etik gorako dirulaguntza ematen badiete".

Zioak: Maiz gertatzen da jarduketa baterako dirulaguntza bat baino gehiago jasotzea, Estatuko edo europar Batasuneko erakundeetatik.

24. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. 3. artikuluko c) letran dioten "foru lege honen menpeko entitateek zuzenean %50etik gorako dirulaguntza ematen badiete" testuaren ordez honako hau proposatzen da: "foru lege honen edo beste administrazio publiko batzuetako antzeko legediaren menpeko entitateek % 50etik gorako dirulaguntza ematen badiete".

Zioak: Aurreko zuzenketarekin bat etortzea.

25. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluko d) letra aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

3. artikuluko d) letra. "Obra publikoen kontzesiodunen obra kontratu eta azpikontratuak".

Zioak: Agente urbanizatzailearen exekuzio-sistemaren izaera pribatua –Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko Foru Legeko 156. artikuluan jasoa dago– dela eta, ez da koherentea Kontratu publikoei buruzko Legearen menpean egotea, non eta ez dagoen gaur egungo Kontratu-ei buruzko Foru Lege proiektuko 2. artikuluko 1. idatz-zatiko e) letrak xedaturikoaren barrenean.

4. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

26. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4 artikulua aldatzeko zuzenketa.

"4. artikulua. Borondateen hitzarmena foru lege honen menpeko kontratu publiko bat da:

a) Lege honen menpeko pertsona edo entitateen baten eta beste pertsona edo entitate baten artean egindakoa.

b) Xede duena obrak egiteak, hornidurak egitea, laguntza ematea edo obren kontzesioa egitea, zerbitzu publikoak eta bestelako prestazioak, prezio baten truke eta kasuan kasu ezartzen diren baldintzetan.

c) Behar bezala definituriko salneurri edo kontraprestazioen truke".

Zioak: Lege honen atariko tituluan, zeinaren xedea baita legearen aplikazio esparrua ezartzea, kontratuak dituen hiru elementuetako bakar bategatik, alegia, xedearengatik, definizio ezberdinak eman nahi izateak zailtasun erantsi bat dauka, zeina ez baita batere lagungarria zehaztasun eta argitasun handiagoa izateko.

Horrenbestez, zuzenketa honetan kontratu guztietarako baliagarria den definizio orokorra emateko ahalegin bat egin da.

27. ZUZENKETA**UNION DEL PUEBLO NAVARRO
ETA NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA****PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

4.2. artikuluar gehiketa egiteko zuzenketa:

4.2. artikuluar beste lerrokada bat eranstea proposatzen da, hitzez hitz honela dioena:

“Kontratu horien indarraldia lau urtekoa izanen da, haien luzapen guztiak barne, salbu eta ohiz kanpoko arrazoiak direla-eta entitate kontratatzailearen beharrianak asetzeko epe luzeagoa behar denean, betiere errespetatuz merkatuan lehia aske eta eraginkorra izatearen printzipioak”.

Zioak: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren martxoaren 31ko 2004/18/EE Zuzentarauak arau orokor gisa ezarri du zerbitzu-kontratuen iraupen arrunta 4 urtekoa izatea. Salbuespen hori foru lege proiektuko 177. artikuluan jasota dago administrazio publikoetarako, baina ez da jasotzen foru lege proiektuko II. liburuan araututako kontratuetakorako.

II. liburua soil-soilik prozedura-kontuetarako denez, 4. artikuluan jasotako definizioa da araua ezartzeko tokirik aproposena.

28. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proiektuko 4. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzea, halako moldez non “edo, kontratatzailearen kontura, hirugarren baten zatat edo herritar guztientzat, prezio jakin baten truke” hitzekin amaitu beharrean, honela amaituko den: “edo, kontratatzailearen kontura, hirugarren batentzat, prezio jakin baten truke”.

Zioak: “Herritar guztientzat” dioen aipamen horrek eragiten du ez bereiztea laguntza kontratua eta zerbitzu publiko baten kontzesiorako kontratua. “Herritar guztientzat” zuzendua egoteak, hain zuzen ere, bigarren horren ezaugarri behar du izan; laguntza kontratuari berez dagokiona, ordea, hauxe da: prestazioa jasotzen duena administrazioa da edo, haren kontura, aldeztatik zehazturiko subjektu bat.

29. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proiektuko 4. artikuluko 5. idatz-zatia aldatzea, halako moldez non “foru lege honen II. eranskinean aipatutako zerbitzuetako baten bat egin dezan” esan beharrean, honakoa esan beharko baitu: “foru lege honen II. eranskinean aipatutako zerbitzuetako baten bat egin dezan herritar guztientzat”.

Zioak: Bereizketa egitea zerbitzuen kontzesiorako kontratuaren eta laguntza kontratuaren artean, proiektuaren testuan nahasirik agertzen baitira.

**5. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA****30. ZUZENKETA****ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

5. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Hain zuzen ere, aurreko artikuluan kontratu motak xedearen arabera bereizi nahi izateak berekin dakar “kontratu mistoak” egotea, hau da, xede mota bat baino gehiago duten kontratuak.

Baina artikulua honek ez du zentzurik baldin eta, proposatu den bezala, definizio bakarra eta zorrotza ematen bada kontratu publikoei buruz, argia eta zalantzarik gabekoa.

**6. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****31. ZUZENKETA****ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

6. artikuluko 1. idatz-zatikoko d) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Arbitraje eta adiskidetze zerbitzuetarako gomendio bat egin beharra dago. Egia esan, administrazioak zuzenean egiten dizkie nahi dutenei, bere bitarteko propioak erabiliz, eta beste entitatearen baten bidez –dela Nafarroako Lan Auzitegia, dela beste edozein– egin nahi badu, gomendio bat egin beharra dauka. Kontratua balitz, lizitazio bat egin beharko litzateke.

32. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

6. artikuluko 1. idatz-zatiko f) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: I + G delakoak lehia printzipioen arabera izan behar du.

33. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

6. artikuluko 1. idatz-zatiko g) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Obra publikoen kontzesio-hartzaileei ez zaie kontratuei buruzko legearen aplikazioa aldaraz dezaketen prestazioak egin behar.

34. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Kenketa egiteko zuzenketa. 6. artikuluko 1. idatz-zatiko g) letra kentzea proposatzen da.

Zioak: Zuzenketa honen bitartez lortu nahi da herrilanen kontzesioetan azpikontraturiko enpresek izatea adjudikazio-hartzaileen eskubide eta betebeharrak berberak.

7. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**35. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Proiektuko 7. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Artikulu horren bitartez klausula berri bat sartzen da, ia-ia zurian, administrazioari bide ematen diona foru legearen aplikazio-eremutik kentzeko nahieran hautatzen dituen kontratuak. 2004/18/CE Zuzentarauan ezarritakoa ezin da klausula orokor bat bihurtu. Halatan, sekretuekin, segurtasunarekin edo interes nagusiekin zerikusia daukaten kasu hauek, arautzekotan, gai horiei buruzko legeetan aurreikusi eta deskribatu behar dira.

36. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

7 artikulua aldatzeko zuzenketa.

“Kontratu publikoei ez zaie foru lege hau aplikatuko... indarra duten lege-, erregelamendu-nahiz administrazio-xedapenei jarraituz.

Zioak: Kontrolik gabeko zuhurtziarakotasuna gertatzeko bidea zabaltzen du.

8. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**37. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Kenketa egiteko zuzenketa. 8.2. artikulua kentzea proposatzen da.

Zioak: Aurreko zuzenketarekin bat etortzea.

38. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Kenketa egiteko zuzenketa. 8.4. artikulua kentzea proposatzen da.

Zioak: Aurreko zuzenketarekin bat etortzea.

39. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa. 8. artikuluko 1. idatz-zatiaren ordezkari honako testu hau jartzea proposatzen da: Foru lege hau ez zaie aplikatuko foru lege honen menpeko kontratuek berezkoak dituzten kudeaketa mandatuei baldin eta mandatu horiek zuzentzen bazaizkie sektore publikoko fundazioei eta kapitala osoki titulartasun publikokoa duten eta jardueraren funtsezko zatia, hain zuzen, jarduera kontratatzen duen entitatearekin edo entitateekin egiten duten entitate eta sozietateei. Hala ere, mandatura jasotzen duen entitateak hura gauzatzeko sinatu behar dituen kontratuak lege honen menpean egonen dira, kontratuak sinatzen dituen

entitatearen izaeraren eta haien mota eta zenbatekoaren arabera bidezko den moduan, eta, betiere, obra, zerbitzu edo hornidura kontratuak direnean, Europar Batasuneko atalaseen gainteko zenbatekoak dituztenak, zuzenbide pribatuko entitateek ezartzen diren publizitate eta lehia arauak bete beharko dituzte haiek prestatu eta adjudikatzeko".

Zioak: Entitate instrumentalaren izaera argi uztea Estatuko aurreproiektuko ezaugarriak jasorik, zeoma asplz ere argiagoa eta beharrik gabeko hutsunerik gabekoa baita.

40. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

8. artikuluko 2. idatz-zatiari beste letra bat, c) letra, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

"c) Ez egotea ez fakturarik ez, berez, preziorik; gomendioaren kostua administrazio-transferentziaz ordainduko zaio entitate instrumentalari".

Zioak: Kontratuko gomendioaren bereizketa garbiak exijitzen du, halaber, preziorik ez egotea.

9. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

41. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proiektuko 9. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzea, halako moldez non "prozedura negoziatuaren bidez adjudikatutako kontratuen zenbatekoaren %20 izanen da" esan beharrean, honakoa esan beharko baitu: "adjudikatutako kontratuen zenbatekoaren %20 izanen da".

Zioak: Muga ezartzeko erreferentzia gisa hartzen badira soilik prozedura negoziatuaren bidez adjudikatuak diren kontratuak, baliteke gehiegi murriztea aukera horretaz baliatzeko modua jardura kontratugile mugatua duten entitateetan.

42. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

9. artikuluari idatz-zati bat, 2. bis idatz-zatia, gehitzeko zuzenketa.

"2. bis) Era berean, erreserbaren onuradun izaten ahalko dira bidezko merkataritzaren arloko enpresak. Haien identifikazioa erregelamenduz arautuko da".

Zioak: Kontratuen erreserba aparteko egoera bat da diskriminazio positiboa egiteko, bai gizartearen barruan, horixe baitira artikuluko honetako lehen bi idatz-zatietan jasotako bi kasuak, bai nazioarteko elkartasunaren esparruan, hain zuzen ere gehitzeko zuzenketa honetan jasotako kasuan bezala.

10. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

43. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. 10. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzea, hau kentzeko hain zuzen: "publikoa nahiz pribatua, espainiarra nahiz atzerri-tarra".

Zioak: Testua hobetu eta erraztea. Ez dago zehaztaperen horiek egiteko beharrik; nahikoa da pertsona natural edo juridiko izateari buruzko aipamena egitea aipamen horren barrenean guztiak sartzen direla ulertzeko.

11. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

44. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

11. artikuluko 3. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Erreduantzia da.

45. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

11. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

"2. Berariazko legeetan hala ezartzen den kasuetan... kontratuko prestazioa egiteko gaitasuna dutela egiaztatzeko, helbide fiskala duen lekuko legeen arabera, europarra baldin bada, estatu

bateko edo Nafarroako edo EAEko foru sistema bateko enpresak izan nahiz Europako legeetatik sorturiko enpresa multinazional europarrak izan; hori guztia, martxoaren 31ko 2004/18 zuzentarauan aurreikusitakoaren areabera”

Zioak: Jarduteko gaitasuna entitatearen kreditazioaren eta kasuan kasuko eratze eta alta fiskalaren baldintzak betetzearen menpe dago. Proiektuan, gainera, ahaztu egiten da estatu ezberdinetakoak diren mugaz gaindiko enpresa europarrak badaudela.

12. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

46. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

12. artikuluko 1. idatz-zatiko bigarren lerrokada kentzeko zuzenketa.

Zioak: Bai martxoaren 31ko 2004/18 zuzentarauan ezarritakoari, bai enpresa multinazionaleri, zehazki Europako edozein estatutan ezarritakoei, jatorriz europarrak diren enpresei ematen zaien tratamendu bera ematen ahal zaie eta eman behar zaie.

47. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

12. artikuluaen titulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

12. artikulua. Europako Batasunetik kanpoko enpresak eta elkarrekikotasun printzipioa”

Zioak: Erreduzantzia bat da. Europarrak ez badira, atzerritarak izan behar dute ezinbestez.

14. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

48. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

14. artikuluko 2. idatz-zatiko h) letra aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

14. artikuluko 2. idatz-zatiko h) letra. “ Enpresaburu edo profesionalak urtean batez beste izanda-

ko plantilla, plantillaren egonkortasun-tasa eta zuzendaritza taldea deskribatzen dituen adierazpena, azken hiru urteen epeari buruzkoa”

Zioak: Lizitatzailer baten gaitasun tekniko edo profesionala ulertzen bada kontratu bat betetzeko gaitasun tekniko edo profesional gisa, lehendik esperientzia izatearen edo behar adinako langile eta bitarteko tekniko edukitzearen ondoriozkoa, beharrezkoa iruditzen zaigu, gaitasun hori balioes-terakoan, plantillaren egonkortasun-tasa ere aintzat hartzea.

49. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

14. artikuluko bigarren lerrokadako h) letra aldatzeko zuzenketa.

Testua honela geldituko litzateke:

“h) Enpresaburu edo profesionalak batez beste izandako plantilla, plantillaren egonkortasun-tasa eta zuzendaritza taldea deskribatzen dituen adierazpena, azken hiru urteen epeari buruzkoa”

Zioak: Proposatutako testua hobetzea.

18 ETA 19. ARTIKULUEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

50. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

18. artikuluko 3. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Bai 3. idatz-zati honetako prozedurak bai ondorengo 19. artikuluan aipatutakoak, mugarik gabeko zuzendaritza ekartzen dute; erabakia, azkenean, Kontratazio Publikorako Batzordeak hartu beharko du, erregelamenduz zehazten den moduan.

51. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. idatz-zati osoa aldatzeko zuzenketa:

“Enpresa lizitatzaileraren titularra den pertsona fisikoa edo konpainia lizitatzailer(en) ordezkariek edo administratzaileak ez egotea epai bidez inabilitatuak kargu publikoetan aritzeko, eta ez eduki-

tzea indarrean aurrekari penalik, desgaitzea ekarri zuen epai baten ondorioz.”

Zioak: Gainerako alderdi guztiak, frogatzen ezinezkoak izateaz gainera, oro har, ez daude justifikaturik.

Are gehiago, xedapen murriztaile hau bat dator artikuluko 2. idatz-zatiarekin.

52. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

19. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Aurreko artikuluan adierazitakoa.

53. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. 18. artikuluko lehen idatz-zatiko a) letra aldatzea, halako moldez non, zera esan beharrean, “Ogasun Publikoaren eta Gizarte Segurantzaren kontrako delituengatik, bidegabeko erabilera, errezeptazio eta antzeko jokaerengatik”, honako hau esan behar duen: “Ogasun Publikoaren eta Gizarte Segurantzaren kontrako delituengatik, langileen eskubideen kontrakoengatik, bidegabeko erabilera, errezeptazio eta antzeko jokaerengatik”.

Zioak: Testua osatzea. Baldin eta hurrengo letran lan-arloko administrazio-urraketak aipatzen badira, logikoa dirudi ezen honetan, zeina zigor arlokoa baita, aipatzea Gizarte Segurantzaren aurkako delituak ez ezik, langileen eskubideen aurkakoak ere.

54. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. 18. artikuluko 1. idatz-zatiko b) letran, “lanbide arloko” espresioaren ondoren, “ingurumen arloko, tributu arloko” hitzak gehitzea proposatzen da.

Zioak: Delitu ekologiko edo ingurumenaren aurkakoek bai eta ogasun publikoaren aurka eginkoek ere prozeduratik kanporatzeko inguruabarren artean egon behar dute.

55. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. 18. artikuluko 4. idatz-zati bat gehitzea proposatzen da, honako testu hau izanen duena:

4. Kontratatzeko debekuek eragina izanen dute, halaber, debekua jaso duten enpresen jarraipen diren edo haien eraldaketa, fusio edo ondorengotza bitartez haietatik eratorriak diren enpreetan ere.

Zioak: Horren bitartez lortzen dugu izendapenaldaketa huts bat nahikoa izatea artikuluko honen helburuari iruzur egiteko.

56. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proiektuko 19. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa, “Ekonomia eta Ogasun Kontseilariari” hitzen ordezkua jartzeko: “ogasunaren arloan eskudun den kontseilariari”.

Zioak: Foru Komunitateko administrazioari buruzko Foru Legeaz geroztik beste foru lege batzuetan ohikoa izan den sistemara egokitzea; alegia, departamentuak une horretan duen izena ez aipatzea, etorkizunean izan daitezkeen aldaketak aintzat hartuz, eta kasuan kasuko gaiaren eskumena duen departamentuaren aipamen orokorra egitea.

20. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

57. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proiektuko 20. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzea, halako moldez non “2.000 biztanle” esan beharrean, “500 biztanle” esan behar duen.

Zioak: Proiektuaren asmoa baldin bada herri txikietan kontratistatik ez izatea, udaleko kide edo haien ahaideak direlako, edo, bestela, udalean

kiderik ez izatea, balizko izangaiak horretarako urratsik egitera ausartzen ez direlako, kontratatze-ko ahalmena galduko duten beldur, bada, justifikatuta egon daiteke, baina ez biztanle-kopuru hain handi baten kasuan. 1.000 edo 2.000 biztanleko herrietan ez da erraza egoera horiek suertatzea, eta kontratazioaren gardentasunaren gaineko kontrola ez da hainbeste laxatu behar.

21. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

58. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

21. artikuluko 3. idatz-zatiaren azken zatia kentzeko zuzenketa.

Testua honela geldituko litzateke:

“3. Kontratazio guztietan efizientzia-mailarik handiena erdiesteko ahalegina eginen da, bai funts publikoen erabileran bai prozeduran, eta aintzat hartuko dira helburu sozialak eta ingurumenaren babesaren arlokoak, eskatutako prestazioarekin zerikusia dutenean.”

Zioak: Funts publikoen erabileran eta prozeduran ahalik efizientzia-maila handiena erdiesten ahalegintzeak, betiere helburu sozialak eta ingurumenaren babesaren arlokoak aintzat hartuz, ez du lotura izan behar soil-soilik entitate kontratuegileentzako abantailekin.

59. ZUZENKETA

ASKOTARIKO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

21. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

21.3. artikulua. Kontratazio guztietan efizientzia-mailarik handiena erdiesteko ahalegina eginen da, bai funts publikoen erabileran bai prozeduran, eta aintzat hartuko dira helburu sozialak eta ingurumenaren babesaren arlokoak, eskatutako prestazioarekin zerikusia dutenean”.

Zioak: Baldin eta helburu sozialak eta ingurumenaren babesaren arlokoak erdiesteak zerikusirik badu eskaturiko prestazioarekin, gure iritziz ezinezkoa da eta, beraz, beharrik gabekoa, artikulua esatea helburu horiek onurak ekartzea, zuzenean nahiz zeharka, entitate kontratatzaileari.

26. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

60. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proiektuko 26. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzea, halako moldez non “jai” esan beharrean, “egun baliogabe” esan behar duen.

Zioak: Idazketa hobetzen du. “Jai” hitza lausoa goa da “baliogabe” baino, eta nahasmena eragin dezake.

61. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. 26. artikuluko 3. idatz-zatian ordezketa hau egitea proposatzen da: “entitate kontratatzaileak agintzen duen moduan” kendu eta horren ordezkari “Administrazio prozedura erkideari buruzko Legean eskabideak aurkezteko moduei buruz xedatuari jarraikiz”.

Zioak: Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa eginiko proposamena jasorik, begi-bistakoa da legeak aplikatu beharra dagoela.

62. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

26. artikuluko 3. idatz-zatian aldaketa egiteko zuzenketa.

Testua honela geldituko litzateke:

“3. Eskabide eta proposamenak aurkeztuko dira Administrazio prozedura erkideari buruzko Legean eskabide-aurkezpenerako bitartekoei buruz xedatuari jarraikiz, eta kontratazioari buruzko iragarkian edo negoziatzeko gonbitean adierazten den toki edo erregistroan gordeko dira”.

Zioak: Eskabideak eta proposamenak aurkezteko bitarteko onargarriak zein diren zehaztea ezin da gelditu kontratazio-organoaren eskuetan, zeren eta, puntu honi dagokionez, aplikatu beharrekoa baita horri buruz Administrazio publikoen araubide juridikoari eta administrazio-prozedura erkideari buruzko Legeak xedatutakoa.

63. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proiektuko 26. artikuluko 3. idatz-zatia honela geratuko da idatzita:

“3. Eskabide eta proposamenak aurkeztuko dira foru lege honetako xedapenek eta administrazio-prozedura erkideari buruzko legediak agintzen duten moduan. Kontratazioari buruzko iragarkiak edo negoziatzeko gonbitak adieraziko du zein erregistro edo tokitan egin behar den aurkezpena”.

Zioak: Araua administrazio prozedurari buruzko oinarritzko legerian xedatuari egokitzea.

**28. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****64. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Kenketa egiteko zuzenketa. 28.3. artikulua kentzea proposatzen da.

Zioak: Gauza bat da informazioaren eta komunikazioen teknologiek eskaintzen dituzten bitartekoak erabiltzea, eta beste gauza bat, herritarrentzako bermeak ezartzen dituzten oinarritzko prozedura-urratsak kentzea.

65. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

28. artikuluko hirugarren lerrokada kentzeko zuzenketa.

Zioak: Foru lege proiektuak aipatzen duen Nafarroako Kontratazioaren Atariak ezin du ordeztu aldizkari ofizialen bidez gauzaturiko publizitatea, hori oinarri-oinarritzko kontu bat da-eta.

Atari hau kontratazio-gaietan publizitaterako bide ofizial gisa ezartzearen zergatia ez da Europar Batasuneko zuzentarauek xedaturiko ezer; izan ere, zuzentarauek ezartzen duten gauza bakarra da kontratu-jardueraren berri emateko informazio-bide elektronikoei bultzada ematea, baina ez dute inondik inora ere behartzen horiek estatu kideetan dauden informazio-bide ofizialen ordeztuz ezartzera.

Zuzenketa hau onesteak berarekin dakar legea berrikustea, atari horretan argitaratu beharri buruzko aipamen guztien ordeztuz Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea ezartzeko.

66. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proiektuko 28. artikuluko 3. idatz-zatia honela geratuko da idatzita:

Nafarroako Kontratazioaren Ataria foru lege honen menpeko entitateen lizitazioen publizitaterako bide ofiziala izanen da. Hala ere, horrek ez du ezertan galaraziko kasuan kasuko aldizkari ofizialean argitaratzea eta egintzak jakinaraztea, legeek horretara behartzen dutenean”.

Zioak: Kontratazioaren Atariak ezin du kendu aldizkari ofizialean argitaratzeko eta jakinarazteko beharra, horrela jokatu behar denean.

**31. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****67. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Gehiketa egiteko zuzenketa. 31.2 artikuluari beste lerrokada bat, bigarrena, eranstea proposatzen da, hitzez hitz honela dioena: “Halaber, administrazio kontratutzat hartuko dira aurrekoenaz bestelako xedea izan arren administrazio izaera berezia dutenak, administrazio kontratu-egilearen berriazko jardun edo trafikoarekin lotura dutelako edo zehazki haren eskumenekoa den helburu publiko bat zuzenean edo tarteko jomugarik gabe betetzen dutelako, baldin eta, betiere, hurrengo idatz-zatian xedatuaren edo lege batean adierazitakoaren ondorioz ez badira kontratu pribatutzat jo behar”.

Zioak: Aurretik zegoen administrazio-kontratuaren esparruari eutsi beharko litzaiokoe, Estatuko aurreproiektuan egiten den bezalaxe.

68. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

31. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“2. Administrazio kontratuak izanen dira obra kontratuak, hornidura kontratuak, zerbitzu publiko-kudeaketarako kontratuak eta obra kontzesiorako kontratuak.

Halaber, administrazio kontratutzat hartuko dira aurrekoenaz bestelako xedea izan arren administrazio izaera berezia dutenak, administrazio kontratu-egilearen berariazko jardun edo trafikoarekin lotura dutelako edo zehazki haren eskumenekoa den helburu publiko bat zuzenean edo tarteko jomugarik gabe betetzen dutelako, baldin eta, betiere, hurrengo idatz-zatian xedatuaren edo lege batean adierazitakoaren ondorioz ez badira kontratu pribatutzat jo behar”.

Zioak: “Administrazio kontratu berezi” deritzen horien administrazio izaerari eustea, estatuko aurreproiektuan egiten den bezala.

Oraingo testuak pribatizatu egiten ditu obra, hornidura eta zerbitzuen kategoria tipikoei egokitzen ez zaizkien kontratu guztiak, eta horrek berekin ekartzen du administrazio-kontratuei dagokinez administrazioak dituen prerrogatibak galtzea, bai eta orain arte administrazio izaera zuten kontratu asko jurisdikzio zibilaren menpean egotea, eta ez administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.

34. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

69. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Proiektuko 34. artikuluko 2. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Berez, foru lege honi baino gehiago, egitura organikoari buruzko xedapenei dagokie ezartzea ezen zerbitzu bat izanen dela foru erkidegoko administrazioan kontratua kudeatzen duen unitatea. Gainerako organismoen kasuan, haien berariazko legedira joarazteko beharrik ez dago.

35. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

70. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proiektuko 35. artikuluko 3. idatz-zatia honela geratuko da idatzita:

“3. Kontratuetan prezioaren ordainketa gerortua debekatzen da, non ordainketa sistema ez den ezartzen finantza errentamenduaren bidez edo erosteko aukera duen errentamendu sistemaren bidez, edo kasuko administrazio publikoko goi-mailako organoak berariaz baimentzen ez duen. Hala ere, ordainketa finantza-errentamenduaren bidez edo erosteko aukera duen errentamendu sistemaren bidez ezarria duten kontratuetan, ordainketarako gehieneko epea lau urtekoa izanen da, kontratuaren adjudikaziotik hasita, epe luzeagorik ez bada adosten, kasuko administrazio publikoko goi-mailako organoak horretarako baimena eman ondotik.

Zioak: Idazketa hobetzen du. Proiektuan bereizi egiten da, batetik, gobernuari dagokion baimena eta, bestetik, lau urteko gehieneko epea gaintuz gero beste organismo batzuei dagokiena; alabaina, bereizketa hori ez da egiten ordainketa gerortua baimenduz gero; horrela, bada, ez da argi geratzen soilik gobernuak egin dezakeen ala ez. Egokiro jokatuz gero, bi kasuetan goi-mailako organora joarazi beharko litzateke modu orokorrean; organo hori, foru erkidegoko administrazioaren kasuan, gobernua da, eta beste entitate batzuentzat, ordea, kasu bakoitzean haien araudiak zehazten duena izanen da.

36. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

71. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA-NEB

Proiektuko 36. artikuluko 5. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Egin beharrik ez dagoen zehaztapena da. Begi-bistakoa da foru lege honetan arautzen ez dena erakunde bakoitzaren berariazko legediak arautuko duela.

72. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proiektuko 36. artikulua honela geratuko da idatzita:

“36. artikulua. Kontratuak izenpetzeko eskumena.

1. Kontratuak izenpetzeko ahalmena dagokie kasuko administrazio publikoaren antolaketa-arauak zehazten dituzten organoei.

2. Kontratatzeko eskumena honako hauei dagokie foru komunitateko administrazioan:

a) Departamentu bakoitzean, egitura organikoari buruzko kasuko arauan eskumen hori esleitua duten organoei. Berariazko esleipenik ezean, eskumena zuzendari nagusiari dagokiola ulertuko da.

b) Erakunde autonomoetan, estatutuen bidez eskumen hori esleitzen zaion organoari. Berariazko esleipenik ezean, ulertuko da eskumena dagokiola pertsona bakarreko goi-mailako organoari.

c) Departamentuko edo erakunde autonomoko kontratazio batzordeari, batzorde hori foru dekretu baten bitartez eratzen denean. Kontratazio batzordeetako kideen artean nahitaez egonen dira zuzenbideko lizentziatu bat, titulazio hori beharrezkoa duen postu bat beteko duena, eta kontu-hartzaile bat.

d) Ogasun-arloan eskudun den departamentuko halako organoari, zeinari foru erkidegoko administrazioaren esparruan horniduren kudeaketa zentralizatua esleitzen baitio egitura organikoa zehazten duen arauak.

e) Obra edo laguntza kontratu jakin batzuk izenpetzeko eskumena foru dekretu bidez esleitua duen organoari.

Zioak: Idazketa sinpletzea. Ez du zentzurik hain arauketa xehekatua egiteak baldin eta, azken batean, 36. eta 38. artikuluen ekintza uztartuaren ondorioz, kontratatzeko eskumena zenbait erregelamendu-xedapenen aplikazioak definituko badu.

73. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proiektuko 36. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzea, “Ekonomia eta Ogasun Departamentuari” hitzen ordezkia honakoa jaritzeko: “ogasunaren arloan eskudun den departamentuari”.

Zioak: Foru Komunitateko administrazioari buruzko Foru Legeaz geroztik beste foru lege batzuetan ohikoa izan den sistemara egokitzea; alegia, departamentuak une horretan duen izena ez aipatzea, etorkizunean izan daitezkeen aldaketak aintzat hartuz, eta kasuan kasuko gaiaren eskumena duen departamentuaren aipamen orokorra egitea.

**38. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****74. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Proiektuko 38. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: 36. artikuluari aurkezturiko zuzenketarekin koherenteak izatearren, eta testua sinpletzearren.

75. ZUZENKETA**ARALAR
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

38. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“3. Departamentuetan eta erakunde autonomoetan... titulazio hori beharrezkoa duen postua beteko duena, eta kontu-hartzaile bat. Lege honetako 59. eta 63. artikuluetan kontratazio mahaietarako ezarritako arauen arabera jokatu dute kontratazio batzorde horiek”.

Zioak: Arauarekin bat etortzeko.

76. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proiektuko 38. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatiak aldatzea, "Ekonomia eta Ogasun kontseilariak" hitzen ordez honakoa jartzeko: "Ogasunaren arloan eskudun den kontseilariak".

Zioak: Foru Komunitateko administrazioari buruzko Foru Legeaz geroztik beste foru lege batzuetan ohikoa izan den sistemara egokitzea; alegia, departamentuak une horretan duen izena ez aipatzea, etorkizunean izan daitezkeen aldaketak aintzat hartuz, eta kasuan kasuko gaiaren eskumena duen departamentuaren aipamen orokorra egitea.

**39. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA****77. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proiektuko 39. artikulua honela geratuko da idatzita:

"39. artikulua. Erosketen zentralak.

Nafarroako administrazio publikoek erosketen zentralak sortu ahal izanen dituzte edo beren burua erosketen zentral gisa eratu, zuzenbidean baliozkoak diren moduetatik edozeinetan, beren beharrak, lotuta edo menpean dituzten entitate eta organismoenak eta beren entitate instrumentalenak asetzeko.

2. Nafarroako administrazio publikoak batzuk besteekin elkartu ahalko dira, erosketen zentralak eratzeko edo eraturik dauden erosketen zentraleri atxikitzeko nahiz haien kudeaketan laguntzeko lankidetzak hitzarmenak izenpetzeko.

3. Erosketen zentralak obra, hornidura eta laguntza kontratuak edo kontratu horietarako esparru-akordioak izenpetu ahal izanen dituzte, foru lege honetako xedapenekin bat, haien zerbitzuak jasotzen dituzten entitateen beharrak asetzeko. Erosketen zentralak zuzenbidean onar daitezkeen formuletatik edozein erabiliko dute obra, hornidura edo laguntzak entitate hartzaileen esku jartzeko.

Zioak: Testua hobetzea, sinpleagoa izan dadin eta, halaber, erakunde eta administrazio publikoen autonomiarekiko errespetu handiagoa erakusteko.

**44. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA****78. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proiektuko 44. artikuluko 1. idatz-zatiko b) letra aldatzea, halako moldean non "Nafarroako Kontratazioaren Atarian" esan beharrean, honela esan behar baitu: "Nafarroako Kontratazioaren Atarian eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean".

Zioak: Kontratazio Ataria egoteak ez du esan nahi Nafarroako Aldizkari Ofizialeko publizitatea desagertu behar denik.

**49. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****79. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proiektuko 49. artikulua honela geratuko da idatzita:

"49. artikulua. Kontratuak betetzeko eskakizun sozialak edo ingurumenaren arlokoak.

1. Administrazio klausula partikularren orrietan sartuko dira, kontratuaren xedarekin bateraezina ez diren neurrian, kontratua betetzeko moduari buruzko gizarte edo ingurumen arloko betekizun xehekatu hauetako batzuk: ontzi, bilgarri edo produktu erabiliak berreskuratu edo berriz erabiltzea; produktu edo zerbitzuen eraginkortasun energetikoa; produktuak berriz erabil daitezkeen ontzietan ematea; kontratistaren kargura hondakinak edo produktu erabiliak jaso eta birziklatzea; luzaroko langabeei lana eman beharra; gazte eta langabeentzako prestakuntza jarduerak kontratistaren kargura antolatzea; gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko edo etorkinak laneratzeko neurriak hartzea; legez ezarritako kopurua baino pertsona ezindu gehiago kontratatu behar izatea kontratua betetzeko; eta antzeko beste batzuk.

2. Betekizun horiek ezin izanen dira ezkutuko zehaztapen tekniko, aukeraketa irizpide edo adjudikazio irizpide izan, eta bereizkeriarik ere ezin izanen dute eragin. Aitzitik, kontratua betetzeko gaitasun teknikoa duen edozein lizitatzailerik bete ahal izateko modukoak izanen dira.

3. Baldintza horiek betetzen ez badira, kontratazio organoak aukeran izanen du, espresuki ohar-tarazi ondoren:

a) Kontratua suntsiaraztea, kontratistak bere erruz kontratua ez betetzeagatik.

b) Kontratuari eustea, kontratuaren prezioaren %20ko zigorra ezarrita.

Bi kasu horietako edozeinetan, foru lege honen babesean deitutako edozein lizitazio prozeduratan lizitatzeko gaitasunik eza deklaratu da, bi urteko eperako.

4. Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak adjudikatzeko, beharrezkoa izanen da, enpresa adjudikazio-hartzaileek 25 langile baino gehiago badute, plantillan sartuta edukitzea, gutxienez ere plantillaren % 25 osatuz, gorputz-urruntasun handia, gortasun sakon edo larria, urritasun psikikoa edo adimen gaixotasuna duten langileak".

Zioak: Testua hobetzea, era horretan saihesteko, alde batetik, inoiz aplikatzen ez den aukera huts bihur daitezela gizarte edo ingurumen arloko betekizunak, eta, bestetik, kontratuaren % 20ko zigorra ez izatea behar bezain gogogabetzailea eta kontratistak nahiago izatea araua urratu eta ordaintzea.

Gainera, indarreko legedian agertzen den langile ezinduen gutxienezko kopuruari heltzen zaio.

80. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

49. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

49. artikuluko 1. idatz-zatia. "...ezartzen ahalko dira..." esan beharrean, honako hau esan beharko du: "...ezarri beharko dira, ahal den guztietan,".

Zioak: Gure ustez, kontratu bat betetzeko moduari dagokionez, ahal den guztietan ezarri behar dira gizarte edo ingurumen arloko eskakizunak; hori dela-eta, ez da aukerakoa soilik izan behar.

81. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

49. artikuluko lehen idatz-zatiaren lehenengo zatian aldaketa egiteko zuzenketa.

Testua honela geldituko litzateke:

"1. Administrazio klausulen orrietan gizarte edo ingurumen arloko eskakizun zehatzak ezarriko dira, kontratua betetzeko moduari buruzkoak, hala nola ontzi, bilgarri edo produktu erabiliak berreskuratatu edo berriz erabiltzea; produktu edo zerbitzuen efizientzia energetikoa; produktuak... eta antzeko beste batzuk?"

Zioak: Bermaturik uztea administrazio klausula partikularren orrietan gizarte edo ingurumen arloko eskakizun zehatzak ezartzea.

51. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

82. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proiektuko 51. artikulua honela geratuko da idatzita:

"51. artikulua. Kontratua adjudikatzeko irizpideak.

1. Kontratuak adjudikatzeko oinarriko irizpideak honako hauek izanen dira:

a) eskaintako prezioa soilik;

b) gainerako kasuetan, eskaintza onuragarriena zein den zehazteko, kontratuaren xedeari lotutako irizpideak erabiliko dira, hala nola kalitatea edo kalitatearen kontrolerako mekanismoak, prezioa, eskaintzaren balio teknikoa, ordezkotuen eskuragarritasuna, ezaugarri estetiko eta funtzionalak, ingurumenari dagozkion ezaugarriak, gizarte-arloko betekizunak, funtzionamendu kostua, errentagarritasuna, salmenta ondoko zerbitzua eta laguntza teknikoa, emate data eta ematearen edo exekuzioaren epea, eta antzeko beste batzuk.

2. Kontratua eragin duen interes publikoa zein den, kontratazio organoek hartarako irizpide egokiak erabiliko dituzte. Eskaintako prezioa elementu erabakigarri bakarra bada, hura soilik erabiliko da adjudikaziorako irizpide gisa. Betiere

kontzesio kontratuak eskaintza onuragarrieneri adjudikatuko zaizkio.

3. Administrazio klausula partikularren orrietan ezarritako adjudikazio irizpideak aplikatuta bi lizitazioak edo gehiagok puntuazio bera lortzen dutenean, berdinketa hausteko ondoko irizpideak hartuko dira kontuan, hurrenkera honetan: langile ezinduen ehunekorik handiena duen enpresa; halakorik ezean, edo berdinketak baldin badira, behin-behineko langileen ehunekorik txikiena duen enpresa. Horretarako, kontratazio mahaiak edo kontratua kudeatzen duen unitateak behar diren agiriak eskatuko dizkie enpresa ukituei, eta gutxienez bost eguneko epea emanen die agiriok aurkezteko.

Aurreko irizpide horiek aplikatu ondoren berdinketak irauten badu, zozketaren bidez ebaztuko da".

Zioak: Testua hobetzea, eta aintzat hartzea ezen gizarte-arloko betekizunengatik ere puntuak eman ahal direla eta halatan adjudikazioan eragin daitekeela, berdinketa-kasuak alde batera utziz.

83. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

51. artikuluko lehen idatz-zatiko b) letrari gehiketa egiteko zuzenketa.

Testua honela geldituko litzateke:

b) gainerako kasuetan, eskaintza onuragarriena zein den zehazteko, kontratuaren xedeari lotutako irizpideak erabiliko dira, hala nola kalitatea edo kalitatearen kontrolerako mekanismoak, prezioa, eskaintzaren balio teknikoa, ordezko produktuen eskuragarritasuna, ezaugarri estetiko eta funtzionalak, ingurumenari dagozkion ezaugarriak, funtzionamendu kostua, errentagarritasuna, salmenta ondoko zerbitzua eta laguntza teknikoa, emate data eta ematearen edo exekuzioaren epea, enpresan % 3 baino baxuagoa izan den langile ezgaituen portzentajea izatea, enpresako plantillako behin-behineko langileak % 10 baino gehiago ez izatea, eta genero-gaietan praktika zuzenak egiteari buruzko ziurtapena".

Zioak: Gaur egungo testuarekin, lizitazioak edo gehiagoren artean puntuazio-berdinketa izatean baino ez lirateke aplikatuko langile ezgaituen portzentajea, behin-behineko langileen kopurua eta abar bezalako irizpideak. Gure ustez, irizpide horiei puntuazioa eman behar zaie, eta aintzat hartu behar dira, adjudikazioa egitean.

54. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

84. ZUZENKETA

UNION DEL PUEBLO NAVARRO ETA NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

54. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

Idatz-zati bat, bosgarrena, gehitzea proposatzen dugu:

"Dokumentazioa ekartzen deneko prozedura-unearen kalterik gabe, gaitasun eta kaudimenaren baldintzak bete behar diren unea izanen da parte hartzeko eskabideak aurkezteko epearen edo, kasua bada, eskaintzak aurkezteko epearen amaierarena".

Zioak: Ez da zehaztu zein unetan bete behar diren kontratatze beharrezkoak diren gaitasun eta kaudimen betekizunak. Zehaztasunik ez horrek segurtasun juridikoari dagozkion arazoak sor ditzake; hori dela-eta, indarreko 10/1998 Foru Legean ezarritako irizpideari jarraitzen zaio.

59. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

85. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proiektuko 59. artikulua honela geratuko da idatzita:

"59. artikulua. Kontratazio mahaiaren esku-hartzea.

1. Hornidura edo laguntza kontratuek 125.000 eurotik gorako balio zenbatetsia dutenean, BEZa aparte, eta obra kontratuek 500.000 eurotik gorako balioa dutenean, BEZa aparte, negoziatua ez den beste prozedura baten bidez adjudikatu ahal izan daitezten, beharrezkoa izanen da kontratazio mahai eratzeari, atal honetan xedatutako moduan, bertan ezarritako eginkizunak bete ditzan.

Kontzesio kontratuak adjudikatze beti eratu beharko da kontratazio mahai.

Gainerako kasuetan, administrazio-klausulen orriak kontratazio mahai bat ezarri ahalko du.

2. Kontratazio mahaiak esku hartzea ez da beharrezkoa izanen 38.3 artikuluan aipatutako kasuan".

Zioak: Obra kontratueterako muga egokiago bat zehaztea; izan ere, proiektuan ezarritako zenbatekoa dela-eta, ia bat ere ez da kontratazio mahai baten bitartez adjudikatuko.

86. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

59. artikuluko 1. idatz-zatiari beste lerrokada bat gehitzeko zuzenketa.

Edozein motatako eta xedetako kontratuak adjudikatzeko, herrilanak egitea xede duten kontratuak barne.

Zioak: Kontratazio Mahaiak organo orokorra izan behar du, prozedura negoziatuan izan ezik.

60. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

87. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

60. artikuluko 4. idatz-zatiko azken puska kentzeko zuzenketa.

Testua honela geldituko litzateke:

"4. Nafarroako Parlamentuan, parlamentu-erakundeetan, Nafarroako toki administrazioko erakundeetan eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan, kontratazio mahaiaren osaera kasuan kasuko araei lotuko zaie".

Zioak: Toki entitateek bezalaxe berariazko arauak dituzten entitateei dagokienez, ez da onargarria ezartzea kontratazio mahaiaren osaerari buruzkoa osagarria izanen dela.

88. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Proiektuko 60. artikuluko 3. idatz-zatia honela geratuko da idatzita:

"3. Mahaikideen izendapena egin ahalko da ezaugarri bereko kontratu bat edo gehiago adjudikatzeko. Kontratu baterako baino gehiagotarako eginkizunak ematen bazaizkio, haren osaera Nafarroako Kontratazioaren Atarian eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da".

Zioak: Mahai iraunkor bat aipatzeak ez du zentzurik, baldin eta kontratuaren xede den gaian espezialista diren kideak izan behar baditu eta klausula partikularren orrietan egiten bada izendapena.

62. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

89. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proiektuko 62. artikulua aldatzen da. Aldaketaren ondorioz, izenburutzat izanen du "Proposamenak baloratzea eta adjudikazioa proposatzea, kontratazio mahairik eratzten ez denean", eta "kontratazio mahaiak eratu beharrik ez dagoen adjudikazio prozeduretan" esan ordez, honako hau esan behar du "kontratazio mahairik eratzten ez den adjudikazio prozeduretan".

Zioak: 60. artikuluari aurkezturiko zuzenketarekin koherente izatearren; izan ere, haren bidez, kontratazio mahai bat era daiteke organo eskudunak hala erabakiz gero, nahitaezkoa izan ez arren.

90. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. 62. artikuluari beste lerrokada bat gehitzea, testu hau duena: "Toki entitateetan, haien berariazko arauak xedatzen dutenaren arabera jokatu da".

Zioak: Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren kezka jasorik, kontua da batzuetan guztia ezin dela toki entitateetara pasa; hortaz, horrelakoei aurre egiteko berariazko arauak izan ditzakete haiek.

91. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

62. artikuluari beste idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa:

Honako testu hau gehituko litzateke:

“Toki entitateetan, haien berariazko arauak xedatzen dutenaren arabera jokatu da”.

Zioak: Kontratua kudeatzen duen unitateari buruz arau honek ezarritakoa, kontratazio mahaia nahitaezkoa ez den kasuetarako hain zuzen ere, ezin da aplikatu toki entitateen esparruan.

**67. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA****92. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Gehiketa egiteko zuzenketa. 67. artikuluko 1. idatz-zatiari beste lerrokada bat gehitzea proposatzen da. Hona testua:

“Lizitazioaren iragarkiaren aurretik, kontratazio organoak kaudimen-irizpide objektiboak ezarrita izan beharko ditu, foru lege honetan aipatzen diren artetik hartuak, eta horiei jarraikiz hautatuko dira proposamenak aurkeztera gonbidatuko diren izangaiak”.

Zioak: Gonbidaturiko enpresen hautaketa objektiboaren garrantzia hobeki azpimarratzen da.

**71. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA****93. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proiektuko 71. artikulua aldatzea, halako moldean non “aldez aurretik lizitazio iragarkia argitaratuta Europako Batasunaren Aldizkari Ofizialean” esan beharrean, honako hau esan behar baitu: “Aldez aurretik lizitazio iragarkia argitaratuta Europako Batasunaren Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontratazioaren Atarian”.

Zioak: Hurrengo artikulua xedatuarekin koherenteak izatearren.

**73. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA****94. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proiektuko 73. artikulua honela geratuko da idatzita:

“73. artikulua. Europako Erkidegoan publizitate-rik ez duten prozedura negoziatuak.

1. Obra, hornidura eta laguntza kontratuak Europako Erkidegoan publizitate-rik ez duten prozedura negoziatuaren bidez adjudikatu ahal izanen dira honako kasu hauetan:

a) Prozedura irekian edo murriztuan eskaintzarik aurkeztu ez bada, aurkeztutako eskaintzetatik bat bera ere egokia ez bada edo hautagaitzarik aurkeztu ez bada. Kontratuaren hasierako baldintzak ezin izanen dira funtsean aldatu eta Europako Batzordeari txostena eman beharko zaio, eskatuz gero.

b) Kontratua ezinbestez enpresaburu edo profesional jakin bati eman behar zaionean, arrazoi tekniko edo artistikoak edo eskusibotasun eskubi-deen babesarekin zerikusia duten arrazoiak tarteko.

c) Entitate kontratatzaileak aurreikusi ez dituen eta berari egotzi ezin zaizkion ezusteko gertaeren ondorioz izapideak berehala egin behar badira, eta presako tramitazioa duten adjudikazio prozeduretako epeak ere luzeegiak gertatzen badira.

2. Obra kontratuetan ere Europako Erkidegoan iragarri gabeko prozedura negoziatua erabili ahal izanen da ondoko kasuetan:

a) Obra osagarri edo lagungarrietan, baldin eta adjudikatutako proiektuan sartuta ez badaude eta ezusteko inguruabarren ondorioz behar-beharrezkoak badira kontratu nagusia ongi bete ahal izateko; betiere, obra nagusia egiten ari den kontratatari ematen bazaio adjudikazioa, obra hori burutu gabe baldin badago eta obra osagarrien zenbateko metatua, gehienez ere, hasierako kontratuaren adjudikazio prezioaren %20 baldin bada.

b) Obra berriak egin behar direnean, hasierako kontratua duen kontratatari enkargatutakoen antzekoak. Betiere, obra berri horiek oinarritzko

proiektu bati lotuko zaizkio, eta proiektu hori prozedura ireki edo murriztu batean adjudikatutako hasierako kontratu baten xede izandakoa izanen da.

Hasierako kontratuaren formalizaziotik hiru urte iragan arte erabili ahal izanen da prozedura hori, baldin eta lehenbiziko kontratuaren lizitazioari buruzko iragarkian hala adierazi bada, eta prestazio guztien zenbateko osoa hartu bada kontuan publikitatearen atalaseak zehazteko orduan.

c) Balio zenbatetsia, BEZa aparte, gehienez 100.000 eurokoa duten kontratuetan. Balio zenbatetsia, BEZa aparte, 40.000 eurotik gorakoa ez bada, izapide hauek bakarrik egin beharko dira: aurretiaz kreditua erreserbatzea, aplikatu beharreko aurrekontu legeen arabera, eta faktura aurkeztea. BEZa kontuan hartu gabe 3.000 eurotik beherako balioa duten kontratuetan nahikoa izanen da faktura aurkeztea.

3. Laguntza kontratuetan, halaber, Europako Erkidegoan iragarri gabeko prozedura negoziatua erabiltzen ahalko da ondoko kasuetan:

a) Zerbitzu osagarri edo lagungarrietan, hasierako laguntza kontratuan sartuta ez badaude eta ezusteko inguruabarren ondorioz behar-beharrezkoak badira kontratu nagusia ongi bete ahal izateko; baldin eta, betiere, laguntza kontratu nagusia betetzen ari den kontratistari ematen bazaio adjudikazioa, kontratu horren betetzea ez bada amaitu eta zerbitzu osagarri edo lagungarrien zenbateko metatua, gehienez ere, hasierako kontratuaren adjudikazio prezioaren %20 baldin bada.

b) Zerbitzu berriak egin behar direnean, hasierako laguntza kontratua duen kontratistari enkargatutakoen antzekoak. Betiere, kontratu hori oinarritzko proiektu bati lotuko zaio, eta proiektu hori prozedura ireki edo murriztu batean adjudikatutako hasierako kontratu baten xede izandakoa izanen da.

Hasierako kontratuaren formalizaziotik hiru urte iragan arte erabili ahal izanen da prozedura hori, baldin eta lehenbiziko kontratuaren lizitazioari buruzko iragarkian hala adierazi bada, eta prestazio guztien zenbateko osoa hartu bada kontuan publikitatearen atalaseak zehazteko orduan.

c) Proiektu lehiaketa baten irabazleari laguntza kontratua adjudikatu behar zaionean, lehiaketari buruzko arauak aplikatzearen ondorioz. Proiektu lehiaketaren irabazleak bat baino gehiago badira, denei egin behar zaie negoziatzearako gonbita.

d) Balio zenbatetsia, BEZa aparte, gehienez 50.000 eurokoa duten kontratuetan. Balio zenbatetsia, BEZa aparte, 15.000 eurotik gorakoa ez bada, izapide hauek bakarrik egin beharko dira: aurretiaz kreditua erreserbatzea, aplikatu beharreko aurrekontu legeen arabera, eta faktura aurkeztea. BEZa kontuan hartu gabe 3.000 eurotik beherako balioa duten kontratuetan nahikoa izanen da faktura aurkeztea.

4. Hornidura kontratuetan ere Europako Erkidegoan iragarri gabeko prozedura negoziatua jo ahalko da:

a) Produktuak ikerketarako, saiakuntzarako, azterketarako edo garapenerako bakarrik fabrikatzen direnean; arau hori ezin zaio aplikatu serieko ekoizpenari, horren helburu bakarra produktuaren bideragarritasun komertziala edo ikerketa eta garapen kostuen berreskurapena bada.

b) Hasierako hornitzaileak entrega osagarriak egiten dituen erabilera arrunteko hornidura edo instalazioen zati bat berritzeko edo, bestela, lehendik diren hornidura edo instalazioak handitzeko, hornitzaile aldaketak ezaugarri tekniko desberdinak dituen materiala erostera behartzen direnean, horrela bateraezintasunak edo erabili eta mantentzeko zailtasun tekniko handiegia sortzen dituelarik, baldin eta halako kontratuen iraupena, eta kontratu berriztagarriena ere bai, gehienez ere hiru urtekoa bada, justifikatutako salbuespenak salbu.

c) Lehengaien poltsa batean kotizatu eta erositako hornidurak direnean.

d) Baldintza bereziki onuragarrietan hornidurak erosteko, dela merkataritzako jarduera behin betiko utzi duen hornitzaile bati, dela konkurtso administratiboari, edo prozedura judizial baten ondorioz, edo Europako Batasuneko beste Estatu batzuetan egiten diren antzeko prozeduren ondorioz.

e) Balio zenbatetsia, BEZa aparte, gehienez 50.000 eurokoa duten kontratuetan. Balio zenbatetsia, BEZa aparte, 15.000 eurotik gorakoa ez bada, izapide hauek bakarrik egin beharko dira: aurretiaz kreditua erreserbatzea, aplikatu beharreko aurrekontu legeen arabera, eta faktura aurkeztea. BEZa kontuan hartu gabe 3.000 eurotik beherako balioa duten kontratuetan nahikoa izanen da faktura aurkeztea.

5. Halaber Europako Batasunean iragarri gabeko prozedura negoziatuaren bidez lizitatu ahal izanen dira Europar Batasuneko atalasetik beherako zenbatekoa duten kontratuak, 71. artikuluan adierazitako kasuetan".

Zioak: Adjudikazio-prozedura horren bermeak indartzea, indarreko legediarekin alderatuta ahuldurik suertatzen baitira.

Legeak gaur egun ezarritako 100eko 20ko mugari eustea proposatzen da, prestazio osagarritzat hartzen delako; 50eraino handitzea neurrigabekeria bat da.

Obra kontratuak adjudikatzeko muga 100.000 eurotan geratzea proposatzen da; 60.000tik 750.000rainoko igoera neurrigabea da erabat.

Laguntza eta hornidura kontratuak adjudikatzeko muga 50.000 eurotan geratzea proposatzen da; 30.000tik 90.000rainoko igoera neurrigabea da erabat.

74. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

95. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Kenketa egiteko zuzenketa. 74. artikuluko 6. idatz-zatia kentzea proposatzen da.

Zioak: Idatz-zati horrek foru lege honen esparrutik at uzten ditu irakaskuntza eta prestakuntzako jardueretarako kontratuak.

96. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proiektuko 74. artikuluko 6. idatz-zatia aldatzea, halako moldez non "organo eskudunak hautaketa edo izendapena egitea ebazpen arrazoitu baten bitartez, zeinak adierazi beharko baitu zer nolakotasun edo merezimendu dituen hautaturiko pertsonak".

Zioak: Arrazoiketa eskatuz bermeak indartzea, horrela ez dadin gerta zuhurtziarokotasuna, kasu hauetan justifika daitekeena, nahierakotasun bihurtzea.

75. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

97. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proiektuko 75. artikulua honela geratuko da idatzita:

"75. artikulua. Lehia-elkarrizketa.

Administrazioak uste izaten badu konplexutasun bereziko kontraturen bat ezin dela prozedura ireki edo murriztuaren bidez adjudikatu, kontratu hori lehia-elkarrizketa deritzon prozeduraren bidez lizitatu ahal izanen da.

Prozedura horretan administrazioak hitz egiten du parte hartzeko eskatu dioten eta berak hautatu dituen enpresa eta profesionalekin. Elkarrizketa horretan lizitatzailleek administrazioaren beharrak asetzeko soluziorik egokienak eskaintzen dituzte, eta gero, soluzio horiek ikusirik, lizitatzailleei eskaintza aurkezteko gonbita egiten zaie.

Artikulu honi dagokionez, kontratu bereziki konplexutzat joko dira kontratazio-organoak objektiboki gaitasunik ez duenean egoki diren soluzioak edo bitarteko teknikoak definitu eta horrela jomuga dituen beharrizan edo xedeei erantzun edo proiektu baten finantza-estaldura ezartzeko".

Zioak: Adjudikazio-prozedura honen bermeak indartzea. Proiektuak desitxuratu egiten du Europako zuzentarauak figura honi eman nahi dion izaera; izan ere, kontratu-mota jakin batzuk multzo gisa hartzen ditu, haien konplexutasunari buruzko axolarik gabe, eta figura honetara joarazten du haien arauketarako.

76. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

98. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proiektuko 76. artikuluko 9. idatz-zatia honela geratuko da idatzita:

"9. Aurkeztu diren eskaintzetatik ekonomikoki onuragarrienari adjudikazioa egiteko proposamena egingen da. Organoak kontratua adjudikatuko du

eta gastua onetsiko du, kontu-hartzaitzak gastua fiskalizatu ondoren.

Zioak: Adjudikazio-prozedura horren bermeak indartzea, eta 2004/18/CE Zuzentarauak xedatutakora egokitzea. Proiektuak ez du aipatzen ezen adjudikazioa ekonomikoki onuragarrien den eskaintzari egin behar zaiola.

80. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

99. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Kenketa egiteko zuzenketa. 80. artikularen 2. idatz-zatiko bigarren lerrokadaren barrenean honako esaldi hau kentzea proposatzen da: "Epe horretan erantzunik jaso ezean, eskaintza baztertutzat joko da".

Zioak: Prozesu elektronikoek erantzun azkarrak eta are ugariak ahalbidetzen dituzte; hori dela-eta, administrazioak eskaintza guztiei erantzun behar die.

100. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Proiektuko 80. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzea, halako moldez non "75.000 euro" esan beharrean, "15.000 euro" esan behar duen.

Zioak: Baliabide elektronikoak erabiltze hutsarengatik muga, administrazio-espeditentea neurririk handienera sinpletzen denekoa hain zuzen, hainbeste igotzeak (73. artikuluko 15.000 euroetatik hemengo 75.000 euroetara) ez dauka zentzurik.

101. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. 80. artikuluko 3. idatz-zatiko b) letraren ordean testu hau jartzea proposatzen da. Honela geldituko litzateke: b) Prezioak eta balioak edo bakar-bakarrik eskaintzen elementuen balioak, kontratua arautzeko baldintzetan

adierazitakoak, edo kontratua eskaintzarik ekonomikoki onuragarrienera adjudikatzen zaionean".

Zioak: Zenbagarriak diren eta zifra eta ehunekoetan adieraz daitezkeen elementuena soilik izan behar duen balioespenak zer-nolakoak izan behar duen interpretatzen hasi beharra saihestearren.

92. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

102. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 92. artikuluko 6. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Testua ez da zehatza, eta oso lauso uzten ditu arautu nahi dituen kasuak. Interes publikoa behar adina babesten dute legeko gainerako xedapenek; batez ere, 92. artikuluko 7. idatz-zatiak, zeinak ahalmena ematen baitio administrazioari uko egiteko edo atzera egiteko.

103. ZUZENKETA

ASKOTARIKO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

92.6. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Klausula administratibo eta teknikoaren orriaren arabera diren eskaintzei zehazten ez diren interes publikoko arrazoiak direla-eta ezezkoa eman ahal izatea zuzentzeko arrazotasun handia da.

104. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

92. artikuluko 6. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Klausula administratibo eta teknikoaren orriaren arabera diren eskaintzei zehazten ez diren interes publikoko arrazoiak direla-eta ezezkoa eman ahal izatea zuzentzeko arrazotasun handia da.

94. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

105. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko zuzenketa. Proiektuko 94. artikuluko 1. idatz-zatian, "agiri pribatuan edo" hitzak kentzea.

Zioak: Administrazioak dokumentu pribatuak luzatzeak ez dauka zentzurik. Betiere ezarri behar da kontratu publikoa administrazio-dokumentu batean jaso behar dela.

106. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. 94. artikuluko 1. idatz-zatiaren ordezkari honako testu hau jartzea proposatzen da:

"1. Administrazio publikoek egiten dituzten kontratuak agiri administratiboan formalizatu beharko dira hamar egun balioduneko epean, behin betiko adjudikazioa jakinarazi eta biharamunetik zenbaitzen hasita, eta agiri hori nahiko titulu izanen da edozein erregistro publikotara sartzeko. Dena den, kontratistak eskatu ahaliko du kontratua eskritura publikoan jasotzea, eta haren kargura izanen dira horren ondoriozko gastuak".

Zioak: Testu osatuagoa.

107. ZUZENKETA

ASKOTARIKO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

94. artikuluko 1. idatz-zatiko lehenengo lerroka da aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

94. artikuluko 1. idatz-zatiko lehen lerroka da. "Kontratuak administrazio agirian formalizatuko dira, adjudikazioa jakinarazten denetik hasita hamabost eguneko epean, administrazio bidean etendura erabaki ezean".

Zioak: Kontratuak dokumentu pribatuan formalizatzeko aukera kentzea, horrek segurtasunik eza ekar baitezake.

108. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

94. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Testua honela geldituko litzateke:

"1. Kontratuak administrazio agirian formalizatuko dira, adjudikazioa jakinarazten denetik hasita hamabost eguneko epean.

Administrazio agirian formalizatutako kontratuak edozein erregistro publikotan sarrera izateko behar adinako tituluak izanen dira".

Zioak: Kontratuak dokumentu pribatuan formalizatzeko aukera kentzea, horrek segurtasunik eza ekar baitezake.

95. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

109. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. 95. artikuluko 1. idatz-zatiko lehen lerroka ondoren beste lerroka bat gehitzea proposatzen da. Hona testua:

"Kasu berezietan, kontratazio-organoak klausula orrian ezarri ahaliko du ezen, aurreko lerroka aipatzen duen bermeaz gain, berme osagarri bat jarri behar dela, kontratuaren adjudikazio-zenbatekoaren 100eko 5erainokoa".

Zioak: Kontratuei buruzko Estatuko lege aurreproiektuarekin bat etortzearen.

110. ZUZENKETA

ASKOTARIKO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

95. artikuluko 1. idatz-zatiko lehenengo lerroka da aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

95. artikuluko 1. idatz-zatiko lehen lerroka da. "Administrazio klausula partikularren agiriak xedatu beharko du bermeak ezarri behar direla kontratua formalizatu baino lehen. Bermeen zenbatekoa, gehienez ere, kontratuaren balio zenbatetsiaren %4 izanen da".

Zioak: Kontuan izanik bermeak ezartzea zeinen baliagarria den eta zer-nolako abantailak dituen balizko ez-betetzeei aurre egiterakoan, iruditzen zaigu nahitaezkoa behar duela izan.

111. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. 95. artikuluko 1. idatz-zatiko hirugarren lerrokadan "atxiki ahal izanen dira" espresioaren ordez "atxiki beharko dira" jartzea proposatzen da.

Zioak: Betebeharrak betetzen ez badira, bermearen kargura ordaindu beharko dira, nahitaez.

112. ZUZENKETA

ASKOTARIKO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

95. artikuluko 1. idatz-zatiko hirugarren lerroka da aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanendu:

95. artikuluko 1. idatz-zatiko hirugarren lerroka da. "Kontratistaren erruz betebeharrak bete ez eta kontratua suntsiarazten bada, bermeak atxiki egiten dira".

Zioak: Baldin eta, errua izanik, betebeharrak ez badira betetzen, bermea atxikitzea ezin da aukerako zerbait izan, kontuan harturik bermearen helburua, hain zuzen ere, horrelako ez-betetzeei aurre egitea dela.

113. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

95. artikuluko 1. lerrokada aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

"1. Kontratua formalizatu baino lehen bermeak ezarri beharko dira, eta haien zenbatekoa kontratuaren balio zenbatetsiaren %4 izanendu da".

Zioak: Ez dirudi komenigarria denik klausulorrien eskuetan uztea kontratu baten adjudikaziohartzaileek bermea ezartzeko betebeharra izateari edo ez izateari buruzko erabakia, batez ere kontuan izanik zeinen baliagarria den eta zenbat abantaila dituen behin betiko bermea ezartzeak, balizko ez-betetzeei aurre egiteari dagokionez.

Berme hori nahitaezko gisa mantentzen da Estatuko aurreproiektuan ere, eta haren zenbatekoa adjudikazioaren zenbatekoaren % 5ean finkatzen du.

114. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

95. artikuluko hirugarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

"3. Kontratistaren erruz betebeharrak bete ez eta kontratua suntsiarazten bada, bermeak adjudikatari ahal izanendu dira.

Zioak: Betebeharrak ez betetzearen kasuan bermea atxikitzea ezin da aukerako zerbait izan, kontuan harturik bermearen helburua, hain zuzen ere, horrelako ez-betetzeei aurre egitea dela.

97. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

115. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. 97. artikuluko 1. idatz-zatiari honako hau gehitzeko zuzenketa:

"Kontratuen adjudikazioak Nafarroako Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko dira, zenbatekoa 200.000 euro edo gehiagokoa denean, BEZa kanpo".

Zioak: Kontraturik garrantzitsuenetarako beste publizitate-sistema bat izatea.

103. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

116. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proiektuko 103. artikuluko 2. idatz-zatia honela geratuko da idatzita:

"2. Kontratista, berari egozten ahal zaizkion arrazoiengatik, epe partzialetan atzeratuta ibili dela eta ziur asko azken epea betetzerik izanen ez duela ikusten bada, edo azken epea betetzen ez badu, kontratazio organoak aukeran izanen du kontratua suntsiaraztea edo kontratua bete dadin behartzea, luzapen bat emanez eta egun bakoitzeko zigor hau ezarri: 0,20 euro, kontratuaren prezioa 1000 euroko bakoitzeko.

Epe partzialetan berandutzeagatik zigorrak barkatu egingen dira baldin eta kontratistak atzerapena gainditu eta azken epea iragan aurretik kontratua betetzen badu".

Zioak: Zigorren kalkulua erraztea eta prezioarekiko sistema proportzional zorrotza ezartzea, proiektukoa bezalako eskala bat aplikatzeak egoera oso ezberdinak eragitea saihesteko.

117. ZUZENKETA

**UNION DEL PUEBLO NAVARRO
ETA NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA**
PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

103.2 artikulua aldatzeko zuzenketa:

Bigarren lerrokada zuzentzea proposatzen da:

"– 10.000,01 eurotik 50.000 eurora bitarteko prezioa, 20 euro egunean".

Zioak: Kopuru bat adieraztean izandako akatsa zuzentzea.

**105. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

118. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proiektuko 105. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzea, halako moldez non "prezioaren % 50" esaten duen kasu guztietan "prezioaren heren bat" esan behar duen.

Zioak: Kontratazioaren bermeei eustea. % 50erainoko aldaketak, proiektuak proposatzen duena bezalakoak, gehiegizkoak dira.

**106. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

119. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proiektuko 106. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzea, halako moldez non "prezioaren % 50" esan beharrean "prezioaren heren bat" esan behar duen.

Zioak: Kontratazioaren bermeei eustea. % 50erainoko aldaketak, proiektuak proposatzen duena bezalakoak, gehiegizkoak dira.

**108. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

120. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proiektuko 108. artikulua aldatzea, halako moldez non "prezioaren % 50" esan beharrean "prezioaren heren bat" esan behar duen.

Zioak: Kontratazioaren bermeei eustea. % 50erainoko aldaketak, proiektuak proposatzen duena bezalakoak, gehiegizkoak dira.

**110. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

121. ZUZENKETA

ARALAR
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

110. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez dago inongo arrazoirik lege honetan azpikontratatzeko edo lagatzeko ahalmena aurreikusteko, hainbeste irregulartasunen jatorria izan baitira.

Zuzenbideak, oro har, norberaren eskubideez baliatzeko edo haiek saltzeko ahalmena ematen du. Artikulu hauek ez egoteak ez du saihesten formalki kontratuak azpikontratatzeko edo lagatzeko, baina "kontratistak" bere betebeharrak guztiak izaten jarraituko du, hirugarrenei aldatu gabe.

Gainera, azpikontratazioa eta lagatzea modu liberal eta irekian arautzea (110. eta 111. artikulua) kontraesanean dago kontratazio-egileari eta lizitatzailari legeko lehen artikuluetan ezarritako baldintzekin.

122. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Proiektuko 110. artikulua honela geratuko da idatzita:

“110. artikulua. Azpikontratazioa.

1. Zilegi izanen da kontratuko prestazioak azpikontratatzea, ezinbestez kontratistak berak egin beharrekoak izan ezik, baldin eta lizitatzailak, bere kaudimena frogatzerakoan, kontratua betetzen lagunduko duten azpikontratazio guztien eta bakoitzak eginen dituen prestazioen zerrenda aurkezten badu eta frogatzen badu azpikontratazio behar adinako kaudimen ekonomiko eta finantzario, tekniko edo profesionala daukatela eta, kasua bada, kontratua betetzean ezarritako gizarte-izaerako betekizunak betetzen direla.

Azpikontratazioak ordeztu ahal izanen dira, aldeztu aurretik frogatzen bada ordeztuak ordeztuaren besteko kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta gaitasun tekniko edo profesionala duela, gutxienez ere, eta kontratua betetzeari dagokionez ezarritako gizarte-izaerako betekizunak betetzen dituela; betiere, entitate kontratatzaileak baimena ematen badu.

Administrazio-klausula partikularren orrian zehaztuko da zein den azpikontratatuaren diren prestazioen gehieneko zenbatekoa. Zenbateko hori inoiz ere ez da izanen kontratuaren balio zenbatetsiaren % 50 baino handiagoa.

2. Hala ere, behin kontratua formalizaturik, kontratuaren xede nagusia betetzeko lagungarriak diren prestazioen azpikontratazioa onartu ahalko da, baldin eta administrazio klausula partikularren orrian hala aurreikusita badago eta ondoko baldintzak betetzen badira:

a) Administrazioari idatziz jakinaraztea kontratuaren adjudikaziodunaren eta azpikontratazioaren arteko kontratua. Kontratua sekretua edo isilpekoa bada, edo segurtasun neurri bereziak hartu behar badira kontratua betetzeko, azpikontratazio berari emandako baimena beharko da.

b) Azpikontratatuaren diren prestazioen guztizko zenbatekoa ez izatea aurreko idatz-zatian adierazitako muga baino handiagoa.

c) Foru lege honetan edo, kasua bada, administrazio klausula partikularren orrian kontratistari prezioa ordaintzeko ezarritako baldintzak baino okerragoak ez izatea kontratuaren adjudikaziodunaren eta azpikontratazioaren arteko kontratua ezartzen direnak.

d) Azpikontratazioak adierazpena aurkeztea, kontratatu ezin izateko arrazoirik ez duela dioena.

3. Ordainketa atzeratzen bada, azpikontratazioak kobrantza gastuengatiko kalte-ordaina eta korrituak jasotzeko eskubidea izanen du, merkataritzako eragiketarako berandutza arautzen duten legeetan xedatutakoaren arabera.

4. Betiere adjudikazioduna izanen da administrazioaren aurrean kontratua behar bezala bete-tzeaz erantzun behar duen bakarra, eta berak bakarrik izanen ditu azpikontratazio bakoitzeko betebeharrak.”

Zioak: Zuhertasun-neurri gisa, azpikontratazioa ez dadin aitzakia bat bihur legeak ezarritako berme jakin batzuei iruzur egiteko.

123. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

110. artikuluko bigarren idatz-zatiko b) letra aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“b) Azpikontratatuaren diren prestazioen zenbatekoa kontratuaren balio zenbatetsiaren %25 baino gehiago ez izatea, non ez den portzentaje txikiagoa ezartzen administrazio klausula partikularren orrian”.

Zioak: Proposaturiko testua hobetzea.

124. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. 110. artikuluko 1. idatz-zatiari honakoa gehitzea proposatzen da: Zilegi izanen da kontratuko prestazioak azpikontratatuaren “hein batean eta, gehienez ere, kontratuaren prezioaren % 60an...”

Zioak: Proiektuaren testutik ondoriozta liteke ezen, eskaintzatik bertatik baldin bada, zilegi dela erabateko azpikontratazioa aurkeztea, eta hori saihestu behar da, edo hori denboran zehar egin ahal izatea.

125. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. 110. artikuluari 5. idatz-zati berri bat ("Azpikontratazioa") gehitzea proposatzen da:

5. Azpikontratatistak eginiko azpikontratazio orok entitate kontratatzailearen aurretiazko adostasuna izan beharko du.

Zioak: Katean eginiko azpikontratazioak oztopatzea da xedea.

111. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

126. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

111. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: 110. artikuluko zio berak.

127. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proiektuko 111. artikuluko 1. idatz-zatia honela geratuko da idatzita:

"1. Kontratutik datozen eskubideak eta betebeharrak behin bakarrik laga ahal izanen zaizkio hirugarren bati, betiere lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak kontratua adjudikatzeko arrazoi erabakigarriak izan ez badira. Inoiz ez da zilegi izanen prozedura murriztuaren edo negoziatuaren bidez adjudikatutako kontratuak lagatzea."

Zioak: Zuhertasun-neurri gisa, lagapena ez dadin aitzakia bat bihur legeak ezarritako berme jakin batzuei iruzur egiteko; horregatik adierazten da lagapen bat baizik ezin dela egin.

128. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

111. artikuluko bigarren idatz-zatiko b) letra aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

"b) Lagatzaileak kontratuaren zenbatekoaren %50 edo gehiago exekutatu izana".

Zioak: Proposatutako testua hobetzea.

129. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. 111. artikuluko 2. idatz-zatiko c) letrari honakoa gehitzea proposatzen da: "eta ez egotea kontratatzeko debekua erakartzen duen ezein egoeratan".

Zioak: Kontratuaren lagapenaren bitartez kontratazio-baldintzak larriki urratzearen aukera saihestea.

130. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. 111. artikuluen 2. idatz-zatiaren d) letraren amaieran honako testu hau gehitzea proposatzen da:

"d) Lagapena formalizatzea, esleipen-hartzailearen eta lagapen-hartzailearen artean, eskritura publikoan".

Zioak: Entitate kontratatzaileak lagapenari buruzko fede publikoa lortzen du.

116. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

131. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

116. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Prezioak berrikusteko aukera ez da agertu behar kontratu publikoei buruzko lege batean.

Zuzenbideak, betebeharrak erregulatzeko arau orokorretan, berrikuspenetarako baliabide batzuk ezartzen ditu, batez ere ezinbesteko kasuetan edo ezin aurreikus zitezkeen aurreikuspenen kasuetan.

Berrikuspenak kontratistek modu irregularrean jarduteko erabili izan duten modua izan da, eta ez dago zertan aurreikusi kapitulu oso batean prezioak berrikusteko aurreikuspen eza; esate baterako, urtebete baino gehiagoko lanak direnean, haien balioa kontratuetan aurreikustea.

Administrazioaren jarduna merkataritza arlo pribatukoa bezain arretatsua izan behar du, batez ere nazioarteko merkataritza pribatukoa bezain arretatsua.

117. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

132. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

117. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: 116. artikuluari aurkezturiko zuzenketa-rako aipaturiko zio berak.

118. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

133. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

118. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: 116. artikuluari aurkezturiko zuzenketa-rako aipaturiko zio berak.

119. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

134. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

119. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: 116. artikuluari aurkezturiko zuzenketa-rako aipaturiko zio berak.

120. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

135. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

120. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: 116. artikuluari aurkezturiko zuzenketa-rako aipaturiko zio berak.

124. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

136. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

124. artikuluko 1. idatz-zatiko k) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Kontratua amaiarazteko arrazoia administrazioaren ez-betetze bat baldin bada, esate baterako ordainketetan atzeratzeagatik, administrazioak bere aldetik joka dezake. Zuzenketa hau bat dator lege honetan soilik administrazioaren ekimenezko amaiarazteak aurreikustearekin.

137. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proiektuko 124. artikuluko 1. idatz-zatiko i) letra aldatzea, halako moldez non "prezioaren % 50" esan beharrean "prezioaren heren bat" esan behar duen.

Zioak: Kontratazioaren bermeei eustea. % 50erainoko aldaketak, proiektuak proposatzen duena bezalakoak, gehiegizkoak dira.

138. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

124. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

"Kontratu publikoak amaitu ahal izanzen dira, administrazio kontratu-egileak eskatuta edo haren ekimenez, hauetakoren bat gertatzen denean:"

Zioak: Lege honetan ezin dira ez arautu, ez mugatu enpresa edo entitate kontratugilearen ekimenak, administrazioaren ez-betetzearen ondorioz kontratuaren amaiera eskatzekoak; legeak, oro har, ezarritakoak dira ekimen horiek.

133. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

139. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. 133. artikuluko 1. idatz-zatia baino lehenago honako testu hau gehitzea proposatzen da:

Proiektuaren prestaketa eta kasuko obren gauzatzea batera kontratatzea salbuespenezkoa izanen da, eta honako kasuetan baino ezin izanen da egin: a) Arrazoi teknikoak direla-eta beharrezkoa denean enpresaburuak obren azterlanekin zerikusia izatea. Arrazoi horiek lotura izan behar dute obraren helburuarekin edo obra egiteko teknikekin.

b) Obrak munta handikoak edo zailtasun tekniko berezikoak izatearen ondorioz enpresen bitartekoei eta gaitasun teknikoari esker lorturiko soluzioak beharrezkoak direnean".

Zioak: Testua osatzeko.

136. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

140. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. 136. artikuluari 2. bis idatz-zati berria gehitzea proposatzen da. Hona testua:

"Berme-epa administrazio klausula partikularren orrian ezarriko da, obraren izaera eta konplexutasuna kontuan hartuz, eta ezin izanen da urtebete baino laburragoa izan, kasu bereziak salbu".

Zioak: Proiektuan berme-epa aipatzen da baina ez da zehazten.

142. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

141. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Kenketa egiteko zuzenketa. 142. artikuluko (kontzesioaren epea) 3. idatz-zatia kentzea proposatzen da.

Zioak: Ez zaigu iruditzen justifikatua dagoenik kontzesioaren epea artikuluko honetako 1. idatz-zatian aipatutako hogeita hamar urteez haratago luzatzea.

155. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

142. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proiektuko 155. artikuluko 5. idatz-zatia honela geratuko da idatzita:

"5. Administrazio klausula partikularren orrietan administrazioak mekanismo egokiak jarri beharko ditu kontzesiodunak egiten duen zerbitzuaren kalitatea neurtzeko, gutxieneko maila batzuk ezarri, zeinen urraketak kontratuaren suntsiarazpena erakar baitezake, eta sari edo zigor ekonomikoak ezarri ahal izanen ditu, lortutako mailen arabera".

Zioak: Zerbitzuaren kalitaterako baldintzak ezartzeak duen garrantzia azpimarratzea.

167. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

143. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proiektuko 167. artikuluko 3. idatz-zatia honela geratuko da idatzita:

"3. Zerbitzuen kontzesiorako edozein kontratu egin aurretik, espediente bat prestatu beharko da,

zeinean adierazi beharko den zer arrazoi tekniko eta ekonomiko dagoen zerbitzuak kudeatzeko modu hau aukeratzeko, eta horrez gain, administrazioak zerbitzua ustiatzeko proiektua eta, behar izanez gero, obra lagungarrien proiektua egin eta onetsi beharko ditu, eta azken kasu horretan obra publikoen kontzesioari buruzko manuak aplikatuko dira".

Zioak: Interes publikoaren aldeko bermeak gehitzea.

144. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 167. artikuluko 4. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Kontratu horiek Europar Batasuneko publizitaterik gabe egitea ez dago justifikatuta.

176. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

145. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. 176. artikuluari (mugak) 3. idatz-zati berri bat gehitzea proposatzen da:

"3. Administrazio klausulen orrian edo kontratuaren agirian bestelakorik xedatu ezean, jabetza intelektual edo industrialerako eskubide batek babesturiko produktuak garatzeko eta eskuratzeko xedea duten laguntza kontratuak berekin ekarriko dute eskubide hori entitate kontratatzaileari lagatzea. Edozein kasutan ere, eta jabetza intelektualeko eskubideen lagapenik izanen ez dela ezartzen denean ere, kontratazio-organoak betiere baimendu ahalko du sektore publikoko entitate eta organismoek kasuko produktua erabil dezatela".

Zioak: Neurrira egiten diren ordenagailu-programak erostea laguntza-kontratutzat jotzen dugunez (171. artikulua), komenigarria iruditzen zaigu jabetza intelektualaren lagapenari buruzko aipamen hori txertatzea.

146. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proiektuko 176. artikuluko 1. idatz-zatia honela geratuko da idatzita:

"1. Ezin izanen dira laguntza kontratuaren xede izan botere publikoei dagokien agintea edo bestelako botereak erabiliz egin behar diren zerbitzuak, ez eta zerbitzu-kontzesioaren xede bera dutenak ere".

Zioak: Kontratu horietatik kanpo dagoenaren definizioa hobetzea.

184. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

147. ZUZENKETA

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

184.etik 206. artikulura bitartekoak kentzeko zuzenketa (bigarren liburua).

Zioak: Enpresa publikoentzako berezitasun bat sortzen da, justifikaziorik ez duena.

148. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. 184. artikuluari beste lerrokada bat gehituko zaio, ondoko edukierekin:

Liburu honek arautzen ez dituen gaietan, ordezkio modura aplikatuko dira foru lege honetako lehenbiziko liburuko xedapenak".

Zioak: Erregulazioa osatzea.

149. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. 184. artikuluan g) eta h) letrak gehitzea proposatzen da.

Zioak: Aurreko zuzenketekin bat etortzea.

187. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

150. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proiektuko 187. artikulua aldatzea, halako moldez non "ezarri ahal izanen dituzte" esan beharrean, "ezarriko dituzte" esan behar duen.

Zioak: 49. artikuluari aurkezturiko zuzenketarekin koherenteak izatearren.

193. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

151. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proiektuko 193. artikuluko 1. idatz-zatiko a) eta b) letrak aldatzea, halako moldez non "prezioaren % 50" esan beharrean "prezioaren % 20" esan behar duen.

Zioak: 73. artikuluari aurkezturiko zuzenketarekin koherenteak izatearren.

204. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

152. ZUZENKETA

ASKOTARIKO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

204. artikuluko bigarren lerrokada kentzeko zuzenketa.

Zioak: 204. artikuluko lerrokada hori irakurrita, ematen du prozedura negoziatuaren kausa gisa aintzat hartzen duela jadanik hasitako kontratu bat suntsiaraztea. Dena den, testu horrek egiten duen igorpena aintzat hartuz interpretaturik, ondorioztatu behar da hori ez dela kausa, baizik eta, izatekotan, igorpena egiten zaion 73.1 c) artikuluan jasotakoa.

Gure iritziz, testu hori Europar Erkidegoko legediaren kontrakoa da formalki, legegileak ezin baitu prozedura negoziatuaren kasu berririk sortu,

eta, gure ustez lerrokada horrek ez duenez halakorik sortzen, ez eta ezer aldatzen ere, hobe da desager dadila.

73.1 c) artikuluan jasotako prozedura negoziatua soilik erabili ahal da bertan ezarritako baldintzak betetzen baditu.

207. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

153. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. 207 artikuluari beste lerrokada bat, bigarrena, eranstea proposatzen da, hitzez hitz honela dioena: "Nafarroako toki entitateen kasuan, Comptos Ganberari igorpen hori eginen zaio Nafarroako toki administrazioari buruzko Foru Legeak ezarritako moduan".

Zioak: Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren iradokizunari erantzutea, harekin ados bai-kaude, eskumen-esparru berezia izateagatik.

154. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

207. artikuluari bigarren idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

"Nafarroako toki entitateen kasuan, Comptos Ganberari igorpen hori eginen zaio Nafarroako toki administrazioari buruzko Foru Legeak ezarritako moduan".

Zioak: Toki administrazioari buruzko Foru Legeak arautzen du Comptos Ganberak toki entitateen jardunaren gainean egiten duen kontrola.

208. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

155. ZUZENKETA

ASKOTARIKO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

208. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

208.1. artikulua. "Kontratazio Publikorako Batzordea Ekonomia eta Ogasun Departamentuari atxikita dago. Kontratazio publikoaren arloan honako entitateei aholku emateko eta ebazteko organoa da: foru lege honen menpeko entitateei, salbu eta Nafarroako Parlamentuari, Comptos Ganberari, Nafarroako Arartekoari, Nafarroako Unibertsitate Publikoari eta Nafarroako toki entitateei eta haien erakunde autonomoi".

Zioak: Gure ustez, Kontratazio Publikorako Batzordea, Ekonomia eta Ogasun Departamentuari atxikitakoa, ezin da izan, adibidez, entitate horien kontratuen aurkako erreklamazioak ebazten dituen organoa, ez bailuke bere autonomia errespetatuko. Erreklamazioaren figura berri horren eraketa arautu behar da entitate horientzat berariazkoak diren araudietan.

156. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

208. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

"1. Kontratazio Publikorako Batzordea departamentu arteko erakunde bat izanen da, gobernua- ren ebakiz sortua eta foru dekretu bidez arautua, eta foru elge honen menpeko entitateen kontratazio publikoaren arloan aholku emateko eta ebazteko organo gisa jardunen du".

Zioak: Kontratuen legean esleitzen zaizkionak bezalako eskumenak dituen entitate bat, Kontratazio Publikorako Batzordea, ezin da atxikia egon soilik departamentu bati, are gehiago kontseilariek izenpeturiko kontratuen prezioei buruzko ebazpenak eman ditzakeenean.

157. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proiektuko 208. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzea, "Ekonomia eta Ogasun Departamentuari" hitzen ordezkia honakoa jartzeko: "ogasunaren arloan eskudun den departamentuari".

Zioak: Foru Komunitateko administrazioari buruzko Foru Legeaz geroztik beste foru lege batzuetan ohikoa izan den sistemara egokitzea, alegia, departamentuak une horretan duen izena ez aipatzea, etorkizunean izan daitezkeen aldaketak aintzat hartuz, eta kasuan kasuko gaiaren

eskumena duen departamentuaren aipamen orokorra egitea.

158. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proiektuko 208. artikuluko 2. idatz-zatia honela geratuko da idatzita:

"2. Batzordeko kideek kontratazio publikoaren arloan prestakuntza berezia izan beharko dute. Batzordearen osaketa, izendapena eta funtzionamendua erregelamendu bidez zehaztuko dira. Batzordearen barrenean organo bat eratuko da, kontratazio publikoaren arloko erreklamazioen ebazpenean espezializatua. Haren lehendakariak funtzionario beharko du izan, eta zuzenbide-titulazioa nahitaezko duen postu bat betetzen aritu beharko du. Organoko kideek beren eginkizunak lanerako erabateko eskuragarritasunez beteko dituzte eta arduraldi eskusiboan, eta kontratazio publikoaren arloan erreklamazioak ebazteko eginkizuna betetzen dutenean erabateko independentziaz jardunen dute, jarraibide hierarkikoei men egitera behartuak egon gabe eta soilik legeari lotuta egonik. Beren postuetatik ezin izanen dituzte kendu, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileei buruzko araudiak jasotako kasuetan baizik".

Zioak: 89/665/EEE Zuzentarauak eskatzen dituen bermeak ezartzea. Parlamentuak edo Unibertsitate Publikoak erreklamazioak ebazte aldera sor dezaketen organoak jarraibide hierarkikoei men egin behar ez diela aipatzen da zioen azalpean eta hamahirugarren xedapen gehigarrian; artikuluetan, ordea, ez da halakorik esaten Kontratazio Publikorako Batzordeari buruz. Hori akatsa da, eta hura konpontzea da zuzenketa honen xede.

210. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

159. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

210. artikuluko 6. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Kontratazio Batzordeari aurkezturiko erreklamazioen erregulazioak ezin ditu ordeztu administrazio prozeduraren arloko arauak eta ezin da hierarkikoki haien gainetik egon, are gehiago haiek lege organiko baten bidez araututa daude-nean.

160. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proiektuko 210. artikuluko 1. idatz-zatia honela geratuko da idatzita:

“1. Kontratu publikoen lizitazioan eta adjudikazioan interesa duten enpresa eta profesionalek kontratazio publikoaren arloko erreklamazioa egin ahal izanen dute, Kontratazio Publikorako Batzordeari zuzendua, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak, bere erakunde autonomoek, kontsulta eta aholkularitza erakundeek, enpresa-entitate publikoek eta haien menpeko beste entitate batzuek adjudikazio prozeduretan emandako tramite edo behin betiko egintzen aurka, egintza horiek lizitaziotik baztertzen badituzte edo haien xede-ei kalte egiten badiete”.

Zioak: Proiektuan arauturiko erreklamazioak soil-soilik Foru Komunitateko administrazioari buruzkoa behar du izan. Toki autonomiaren printzipio konstituzionalaren aurkakoa da administrazio horretako organo batek ebaztea toki entitateen egintzen aurkako erreklamazioak (Administrazio Auzitegiaren kasua salbuespen bat da, foru araubideari loturikoa baita eta, gainera, errekurtsioa edozein kasutan ere aukerakoa baita); are gutxiago komeni da beste entitate batzuen egintzez arduratzeko eskumena izan dezala, hala nola Nafarroako Parlamentuaren edo Nafarroako Unibertsitate Publikoaren egintzez.

161. ZUZENKETA

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

210. artikuluko 4. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“4. Kontratazio Publikorako Batzordearen ebazpenak ebazpen administratiboak izanen dira, eta haien aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahalko zaio, Administrazio publikoei buruzko 15/2004 Foru Legean ezarritakoari jarraituz, Lehendakaritza kontseilariari; errekurtsio horien ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-

bideari. Hori dela eta, epai bidez eteten ez diren bitartean, berehala bete beharrekoak eta lotesleak izanen dira”.

Zioak: Kontratazio Publikorako Batzordearen ezaugarri juridikoak eta haren erabakien maila eta izaera zorrotz erregulatu beharko dira, eta haren ebazpenak, noski, ezin diote amaierarik eman administrazio-bideari, zeren eta halakorik gertatzea kontraesana izanen bailitzateke 15/2004 Foru Legean ezarritakoarekin ez ezik, administrazio prozedura erkideari buruzko 30/1992 eta 4/1999 legeetan ezarritakoarekin ere.

214. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

162. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. Beste artikulua bat gehituko da, 214. Hona testua:

“214. artikulua. Kontratazio publikoaren arloko erreklamazioa beste entitate batzuetan.

Foru Lege honen menpeko entitateek, 210. artikuluko 1. idatz-zatian aipaturikoez bestelakoek, titulu honetan arauturiko erreklamazio-araubidea aplikatu ahalko dute, dela erreklamazio horiek ebazteko berariazko organo bat sortuz, 208. artikuluko 2. idatz-zatian adierazitako ezaugarri berberak izanen dituen, dela Nafarroako Foru Komunitateko administrazioarekin lankidetzat hitzarmen bat izenpetuz, halako moldean non organo ebazlea Kontratazio Publikorako Batzordea izanen baita”.

Zioak: Erreklamazio-araubidea beste entitate publiko batzuei aplikatzeari dagokionez haien autonomia hobeki errespetatuko duen modu bat ezartzea.

XEDAPEN GEHIGARRIEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

163. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. Bigarren xedapen gehigarriari beste idatz-zati bat gehitzea, honako eduki hau izanen duena:

“Zenbait pertsona, kargu edo lanposturi buruz ari denean foru lege honek genero gramatikal maskulinoko izenak erabiltzen dituen kasu guztietan (gaztelaniazko “licitador”, “presidente”, “consejero”, “director”, “secretario”, “licenciado” eta abar) ulertu behar da adierazpideen ekonomia hutsagatik jokatzeko dela horrela, eta postu horiek orokorrean hartzen dituela hizpide, haiek bai emakumezkoek bai gizonezkoek betetzen dituztela ere, erabateko berdintasun-baldintzetan, ondorio juridikoen ikuspegitik”.

Zioak: Zehaztea ezen genero gramatikal maskulinoa zentzu orokorrean erabiltzeak, gramatika-arau ofizialen arabera, ez duela sexu-bazterkeriarik eragiten, ez eta emakumeen presentzia sozialari ez-ikusiarrena egiteko asmorik ere adierazten.

164. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hirugarren xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Xedapen gehigarri hau kontraesanean dago 208. artikuluko 3. idatz-zatiko b) letrarekin; izan ere, letra horretan Kontratazio Batzordeari eginkizun garrantzitsu gisa esleitzen zaio adjudikaziorako irizpide eta baremoak prestatzea, hau da, orri estandarrak.

Gobernua baldin bada orri estandarrak onestea toki entitateetarako klausula administratibo orokor gisa balia daitezkeen, badirudi nahitaezkoa izan behar duela haiek erabiltzea; hala bada, autonomia administratiboa hausteaz gainera, eginkizunik gabe uzten du Kontratazio Batzordea, zeren eta klausula orokorrek estandarrak izan behar baitute, eta kasuan kasu zehaztu beharrekoak.

165. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proiektuko hirugarren xedapen gehigarria aldatzea, halako moldez non “Ekonomia eta Ogasun kontseilari” hitzen ordean honakoa jarriko baita: “ogasunaren arloan eskudun den kontseilari”.

Zioak: Foru Komunitateko administrazioari buruzko Foru Legeaz geroztik beste foru lege batzuetan ohikoa izan den sistemara egokitzea; alegia, departamentuak une horretan duen izena

ez aipatzea, etorkizunean izan daitezkeen aldaketak aintzat hartuz, eta kasuan kasuko gaiaren eskumena duen departamentuaren aipamen orokorra egitea.

166. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bederatzigarren xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Xedapen sasi iragankor edo ia iragankor edo sasi iragankor honen edukiak indarra kentzen dio arauari; hura xedapen gehigarri gisa ez egoteak ez dio inolako kalterik egiten legeari.

167. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko hamargarren xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gai hori Foru Komunitateko administrazioaren egitura organikoari buruzko erregelamendu-arauei dagokien antolaketa-kontu bat da, eta ez du eskatzen lege-mailako araurik egitea. Gai hori proiektu honetan ukitzea ez dago justifikatuta.

168. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hamargarren xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa. Atxikipen funtzionala Kontratazio Publikorako Batzordeari.

“Kontratazio Batzordeak departamentu arteko organo bat izanen da eta foru dekretu bidez arautuko da; haren osaketa gobernuaren erabakiz zehaztuko da”.

Zioak: Kontratuen legean esleitzen zaizkionak bezalako eskumenak dituen entitate bat, Kontratazio Publikorako Batzordea, ezin da atxikia egon soilik departamentu bati, are gehiago kontseilariak izenpeturiko kontratuen prezioei buruzko erabakiak har ditzakeenean.

169. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proiektuko hamargarren xedapen gehigarria aldatzea, halako moldez non "Ekonomia eta Ogasun kontseilari" hitzen ordezkari jarriko baita: "ogasunaren arloan eskudun den kontseilari".

Zioak: Foru Komunitateko administrazioari buruzko Foru Legeaz geroztik beste foru lege batzuetan ohikoa izan den sistemara egokitzea, alegia, departamentuak une horretan duen izena ez aipatzea, etorkizunean izan daitezkeen aldaketak aintzat hartuz, eta kasuan kasuko gaiaren eskumena duen departamentuaren aipamen orokorra egitea.

170. ZUZENKETA**ARALAR
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Hamabigarren xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Kontratuei buruzko foru lege hau Merkataritza eta Industria Ganberari aplikatuko zaio; lege honen aplikazio esparrutik kanpo geratuko dira ondare araubide ezberdinei edo bestelako harremani buruzko gainerako gaiak.

171. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Proiektuko hamahirugarren xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Bai Nafarroako Parlamentuaren eta bai Nafarroako Unibertsitate Publikoaren autonomiari eraso egiten dio. Ez da onargarria Foru Komunitateko administrazioeko organo batek haien egintzak berrikusteko ahalmena izatea.

172. ZUZENKETA**ASKOTARIKO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Hamahirugarren xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: 208. artikuluari aurkezturiko zuzenketa-rekin koherenteak izatearren.

173. ZUZENKETA**ARALAR
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Hamahirugarren xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Nafarroako Parlamentuari dagokionez, lege hau ez zaio aplikatu behar; edozein modutan ere, erreklamazioak ezin dute erakunde hori utzi Kontratazio Batzordearen menpean.

Nafarroako Unibertsitate Publikoari dagokionez, Kontratu publikoei buruzko Foru Legearen esparruari atxikitako gainerako erakundearen tratamendu bera izan behar du, eta ez dago justifikaturik inolako erakunde kolegiaturik sortzea, gutxiago ez baldin badago jarraibide hierarkikoen menpe, eta are gutxiago zehapen-kautela bat ezarririk; alegia, hiru hilabeteren epean erakunderik sortu ezean, zehapen gisa, erreklamazioen araubidea aplikatuko zaiola.

174. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Gehiketa egiteko zuzenketa. Hamalagarren xedapen gehigarria gehitzea proposatzen da. Testu hau izanen du: "Lege honen menpeko sozietateen kontratuen arloko errekurtsioak.

Lege honetako 2. artikulua aipatzen dituen kontratuen arloko erreklamazio eta errekurtsioei dagokienez, uraren, energiaren, garraioen eta telekomunikazioen sektoreetako kontratazio-prozedurei buruzko abenduaren 20eko 48/1998 Legeko 51.etik 64.era artikuluek diotena aintzat hartuko da; horrenbestez, 93/98 EEE eta 93/13/EEE zuzentarauak Espainiako antolamendu juridikoan txertatzen dira".

Zioak: Aurreikusitako gabe dauden sozietateen kontratazioari buruzko erreklamazioetan zer prozedurari ekin behar zaion ezartzea; izan ere, jadanik jasota dago Estatuko kontratuei buruzko Lege indardunean eta Europako zuzentarauetan.

XEDAPEN IRAGANKORREI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

175. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen iragankorra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Zuzenketa hau lege honen proiektuko 28. artikuluari aurkezturiko zuzenketaren ondorioa da.

176. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko hirugarren xedapen iragankorreko 2. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Toki entitateetako erreklamazio-araubideari buruzko zuzenketekin koherente izatearren.

177. ZUZENKETA

ASKOTARIKO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hirugarren xedapen iragankorreko 2. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: 208. artikuluari aurkezturiko zuzenketa-rekin koherenteak izatearren.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 43,95 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	